OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIN'EK
(EUSKERAZAINTZA'ren LENDAKARIA)

# MILIAN



## DONEMILIANE

Kristiñau euskaldunak VIII gizaldira arte
(Mungialde)
Cristianos vascos hasta el siglo VIII
(Zona de Mungia)

NOVELA HISTORICA
o
HISTORIA NOVELADA

ELEBARRI-ANTZERA

OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIN'EK
(EUSKERAZAINTZA'ren LENDAKARIA)

# MILIAN



## DONEMILIANE

**Kristiñau euskaldunak VIII gizaldira arte
(Mungialde)
Cristianos vascos hasta el siglo VIII
(Zona de Mungia)**

**NOVELA HISTÓRICA
o
HISTORIA NOVELADA**

ELEBARRI-ANTZERA

Egillea: Olazar eta Uribe’tar Martin
Autor: Martin Olazar Uribe
Irudiak / Ilustraciones: Cada imagen lleva su indicación: Portada (Imagen de San Millan a caballo recibida de San Millán de la Cogolla (Suso), varias de Foto-Argi-Mungia, Mayoría del Museo Diocesano-Angel Gómez, del Ayuntamiento de Mungia y del Departamento de Arqueólogos de la Diputación Foral de Bizkaia. Gracias.
Lenengo argitalpena / Primera edición: 2002-09-29.

Fotokonposaketa eta inprimaketa
Fotocomposición e imprenta: Flash Composition, S. L.
Alameda Recalde, 6 - 48009 BILBAO
Lege Gordailua / Depósito legal: BI-1829-02

# AURKIBIDEA / ÍNDICE


1.– Sustraien billa ........................................................... 9
Buscando las raíces ........................................................ 11

2.– “Gure Aita” lenengoz ................................................... 13
Elusa eleiza euskalduna ............................................... 17
Agino / Agen ................................................................. 18
Euskalerrira kristiñautasuna .......................................... 19
¿Cuándo se oyó por primera vez el “Gure Aita”? ........ 20

3.– Lekaideak Eleizan ........................................................ 21
Breve historia de los monjes en la Iglesia .................... 25

4.– Lekaide-etxeak Euskalerria’n ....................................... 29
Monasterios en Euskalerria ........................................... 32

5.– Berriaga’ko erri zarra .................................................. 36
Pueblo indoeuropeo en Berriaga ................................... 39

6.– Milian abadea Berriaga’ra ............................................. 41
Otoitz-aldia Akosta’n: Bialtzea / Acto oracional en Acosta:
El envío .......................................................................... 45
Llegada de Milian a Berriaga ....................................... 46

7.– Lenengo euskaldun fededunak Berriaga’n .................... 49
Primeros cristianos vascos en Berriaga ........................ 52
Lenengo bateoak Berriaga’n ......................................... 55

8.– Mungia'ko Birlera Barri Ona .................................... 56
Primeros bautizos en Berriaga .................................. 61
Evangelización en Villela de Mungia ......................... 62
Alkar-izketa latza .................................................... 67

9.– Zumetxaga'n gaurko Bakio ta Larrauri ...................... 68
Milian'en eta Birleko'ren otoitz-aldia Jatamendi'n ...... 71
Zumetxaga: Acuden Bakio y Larrauri ........................ 72
Oración en Jatamendi ............................................... 74

10.– Fruniz'ko kristiñau barriak ....................................... 75
Mari, sorgiñak, lamiak, basajaunak, aztuak, sanatenes, begizkoarena, Peru Marala'ko ................................... 82
Nueva comunidad cristiana en Fruniz ........................ 83
Mari, brujas, adivinos, curanderos, mal de ojo, Peru de Marala ..................................................................... 87

11.– Gamiz'ko Magdalena ta Kafranga ............................ 88
Auzoak eta auzoak ................................................... 92
La Magdalena y Kafranga en Gamiz ......................... 93
Bisigotak eta euskaldunak ........................................ 95

12.– Mungia'ko Llona'n ................................................... 96
Llona de Mungia ...................................................... 100
No todos los barrios son iguales ................................ 102

13.– 1go geigarria: Kofradiak, eremutarrak, serorak eta freilak 103
Un diálogo amargo ................................................... 105
Los visigodos y los vascos ........................................ 106
Apéndice 1.º: Cofradías, ermitaños, seroras y freilas .... 107

14.– 2n. geigarria: Jaungurtza (Kultoa) VIII gizaldira arte .. 109
Milian’en kerigma ........................................................ 111
Apéndice 2.º: El culto hasta el siglo VIII ...................... 112
El kerigma de Milian .................................................. 114

15.– 3n. geigarria: Edesti-arloko oiñarriak ............................ 115
Apéndice 3.º: Fundamentos históricos de la narración .. 117

16.– 4n. geigarria: Eleiz-alkarte oneik ikertzen gaur ............ 119
Milian’en zartzaroa ta eriotza ....................................... 121
Apéndice 4.º: Visita a estas comunidades hoy .............. 122
Irudien aurkibidea / Índice de ilustraciones .................. 124
Idazlearen beste lan batzuk / Otras obras del mismo autor ................................................................. 126

# 1.– SUSTRAIEN BILLA

1968n.urtean! A izan zan samintasuna! Egun bat beratan baseleiza bi agertu ziran zapuztuta edo erdi erreta: Gaztelugatxe’ko Jon Deunarena, eta Atxerre’ko Kepa Deunarena.

– Zu Mikel, adiskide! Zergaitik erre dozuez baseleiza orreik? Ez dakizue baseleizak gure euskal-fedearen sustraia dirala?

– Bai. Baiña euskaldunok berez ez gara kristiñauak. Kristiñautzea kanpotik etorri jaku. Gure nortasuna okerbidera daroa orrek.

– Baiña adiskide! Euskaldunok beti jakin dogu kanpotik etorritako gauzak euskaldun biurtzen. Geure-geure egin doguz. Begira: Pelota jokoa, eta izena bera, kanpotik etorria da eta munduan pelotaririk ospetsuenak geu gara; edo dantzea kanpotik etorria dala be badiñoe, izena bera be ez da euskerazkoa; edo txapela latiñezko “kapela”tik artua da eta ez dozu esango txapela euskaldunen ezaugarri ez danik; txistua bera geure-geurea dogu, baiña erbestetik etorria. Lagun! Kapotik datozen gauzak osotu eta sendotu egiten gaitue, artzen jakin ezkero. Zelan ba, zuek eleizak erreten?

Ba... nik esango neuke guk kristiñatzea ez dogula geuganatu, gure artean ez dago benetako kristiñaurik, kristiñau-antzekoak, etxurazkoak baiño ez gara. Eta zenbat erlejiño-oitura zapaldu ta kendu dauzan fedeak: Gabonetako su-jaia, Donibane ospatzen dan egunean egoan suaren jaia, sanatenes, begizkoarena, sorgin-oiturak, eta abar. Dana zapuztu dau fedeak eta gure oituren lekuan bera ezarri. Orregaitik, fedea gure artetik kendu egin bear dogu, eleizak erre.

– Oker zabiltz, Mikel! Oso oker! Euskaldunak alkar-ulertu-eziñak izan gara beti eta Kristo’gan dogun fedeak alkar maitale biurtzen gaitu. Milla ta seireun-bat urte daroaz bide onek gure artean eta orrelan gure jokabidea obetu egin dau. Egia da, oraindiño ba-dagoz bide

ori artzen ez dabenak. Esaterako arazoak berbaz konpontzeko bidea artu nai ez dabenak. Eta zenbat negar eragiten dauskuen! Guk ez gendun nai geure etxea gorpuen gaiñean egiterik. Ori ez da Kristoren bidea eta Euskaldun jatorren bidea be ez, gaur baintzat.

– Bai. Gauza politak! baiña itzak baiño ez! Gaur be ez dira kristiñauak gure zapaltzailleak? Ez ete da Eleizea bera, erri lez, ontzat eta aintzat artzen ez gaituana? Fedea benetan artu gendun eta munduan zabaldu be bai ainbeste milla misiolari zabaldu doguzala. Eta Erroma'ko Aita Santuak gure jaurleak ara joan zirananean, larritasunezko giro aretan artu be ez ebazan egin, artuak izateko baldintza lotsagarria ezarri eutsen: "Feda'ko Españatarrakaz bat egin bear dozue, erkalaren aurka". Eta ezetza esan eutsenean auxe erantzun eben: "Kontzientziz zuen jokabidea zuzena izan leiteke, baiña galtzeko bidea dozue ori".

– Ara Mikel! Gauza asko dakizuz eta ez dautzut nik errazoia kenduko. Eleiza lez ez dogu beti ondo jokatu, ez eta Euskalerria aintzat oso-osoan artu. Egia esan oiñarri on batzuk aurkituko dozuz iru lekutan: Pacem in Terris XXIII Jon'en agirian, Batikano'ko II Batzar Nagusian eta Bilbao'ko Gotzaiña izan zan Añoberos'tar Antonio'ren itzaldian. Baiña ez doguz argi agertzen irakatsi orreik, Bildurra? Baleiteke. Bakeagaitik isildu? Ori ez da benetako bakea, ori ez da arazoa bideratzea. Baiña jakin egizu Kristo'gan dogun fedea zelan sartu zan gure artera. Or aurkituko dozu baseleizen garrantzia. Billatu egizuz sustraiak.

– Beti gagoz ikasten! Aleginduko naz argitara urreratzen. Baiña beti izango naz aztertzaille zorrotza. Ez daust iñok katua erbitzat sartuko. Eleizearen sustraiak Euskalerrian billatzeko, itaun asko daukaguz aurrean: Noiz etorri zan Barri ona gure artera? Nondik jakin daikegu ori?

Jakiña. Agirietan ez dago dana. Iñoz be ez. Gitxiago ain antxiñako urteetan eta idazten zaleak izan ez diran euskaldunen artean.

Etxeak daukaguz or. Baseleizak. Euren edestia dauke eta ori arri landuetatik ateraten dogu. Euskaldunak argin onak izan dira. Inguru orretan aurkituko doguz illobiak, urtearen markea aldean dabela. Gosez eta egarriz urreratuko gara olako esku-lanetara.

Eta or agertzen dana zelan agertu erriari?

Bide bat liburuak dira: Pozik idatzi eta pozik irakurteko eraz idazten diran liburuak. Onein artean elebarria, nobelea. Baiña orretarako irudimena ta barruko su bizia bear dira. Nok leukazen!

Ez da ba edestia, ez da istoria. Gaur edestia zeatza izaten da. Gauza batzuk izango dira edestia, beste batzuk antzeko zerbait eta beste batzuk irudimenaren ondorena...

## Buscando las raices

**Hemos conocido una época reciente en que nuestros rebeldes se dedicaron a quemar ermitas. ¡Qué pena! ¡Quizá no sabían que ahí estaban nuestras raíces!**

**Incluso hemos oído a prelados que no merece la pena restaurar ermitas muy deterioradas. Yo creo que hasta había que edificar nuevas en recuerdo de bastantes que han sido derruidas. Ahí se conservan tradiciones de valor histórico y antropológico enorme.**

**Dicen algunos jóvenes que la religión cristiana es para nosotros, los vascos, algo importado. Así es, como también son importados la pelota, el nombre de la boina, bastantes bailes y... ¡cuántas cosas! Aún rasgos muy importantes de nuestra lengua milenaria. El gran mérito de los vascos está, sin duda, en la originalidad, pero no menos en saber asimilar y dar carácter propio a valores extraños.**

**También es verdad que han sido cristianos nuestros enemigos más reconocidos y encarnizados, como los visigodos, y muchos más recientes que llevan la consigna “domuit vascones”, pero todo lo hemos superado. Estamos territorialmente marginados pero no del todo abatidos.**

**No podemos negar que la misma Iglesia no ha sido ni es siempre suficientemente considerada con nosotros. Admitámoslo como “pecados de familia”. Podemos también citar el apoyo que encontramos en la Pacem in terris del Papa Juan XXIII, o palabras del Concilio Vaticano II y también la homilía famosa y**

**valiente de Mons Añoberos, que, desgraciadamente, la hemos sepultado bajo el polvo del olvido. Alguna vez tendremos que oir que no supimos defender la territorialidad de nuestro pueblo en sus seis eskualdes y los derechos nacionales cuando fue el momento oportuno.**

**En esta breve narración, parte ficción y parte historia, vamos a tratar de entrar a las raíces de nuestra fe y reconocer la difícil inculturación de la fe en Euskalerria.**

# 2.– “GURE AITA” LENENGOZ

– Geure gauzak zeatz aztertzen asi baiño lenago, begiratu dagigun gure edestira eta ikusi noztik ona garan kristiñau euskaldunak –esan eustan Mikel’ek.

– Ai Mikel! Ez da erantzuna zuk uste dozun bestean erreza! Eta ori errazoi askogaitik.

– Asi gaitezan ba, astiro-astiro –esan eustan Mikel’ek arazoa ulertuz.

– Erri baten aldakuntza, esan neutsan, ez da egiten egun baten, ez urte baten eta ez gizaldi baten be. Lenengo kristiñaua bateatzen danetik erri oso bat kristiñau izatera urteak igaroten dira, gizaldia bear ba da. Ori edonon eta geiago banakako baserrietan bizi garan euskaldunon artean.

– Eta erri guztietara batera ez zan etorriko fedea ez? –esan eustan Mikel’ek.

– Ondo asmatu dozu ori, Mikel. Ainzuzen be, bide-zabalen ondoan egozan erri aundietara eldu zan lenengo eta askoz geroago inguruetako basetxeetara.

– Eta nondik sartu jakun fedea? Kaligurri’tik, Iruña’tik ala Iparraldetik?

– Egia esan, arlo onetan eztabaidak ugari sortu dira, batzuk oso berandu etorri zala ona fedea diñoe. Oneik gienetan Euskalerria izterbegiz begiratzen dabenak izaten dira, beste batzuk ostera, Kristo berbiztu eta laster sartu zala. Au be geiegikeria da. Au ziurtatzeko goazen arri landu batera.

Mungia-ondoan dan Berriaga’n arri landu bat agertu zan eta ikusi be egin eben Henao edestilariak eta beste askok. Arrigarria benetan. Arri au Belilla santeari eskiñia da, bertan diñoan lez 70n.urtekoa eta Belilla ori Jesukristo’ren mirabea izan zala diño: Serva Jesuchristi.



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Magdalena deuna (Mungia) VII Gizaldiko Leioa. Ventana visigótica del Siglo VII.

70n.urtean Berriaga’n olako santa bat izatea eziñezkoa da. Orregaitik diñoe arri ori Mungia’ko Villela sendiak asmaurikoa dala, orrelan sendiaren izen ona goratzeko, etxean done bat eukiteko. Larregikeri aundia ori.

Erti-arloko agiri zar bat ikusi nai ba’dozu, biar da Maria Magdalena Santearen eguna eta goazen bere baseleizara, Iturbaltza’ra (Mungia’n).

• • •

Urrengo egunean goiz-erdian etorri jatan Mikel adiskidea eta neure berebillean sartu eta artu gendun Mungia’n Gernika’rako bidea. Belako’n alde batera itzi gendun bide ori eta Larramendi ikastolarako bidea artu. Au be amaitu jakun eta ezkerrera jota, eldu gintzazan Magdalena donearen baseleizara.

Zuzen-zuzen eroan neban baseleiza onek daukan leioa, lenengo kanpotik eta gero barrutik, ikustera eta esan neutson:

– Mikel zer deritxazu leio oneri?

– Gauza bakana da -esan eustan- eta gaiñera esan lei bera barruan dauan baseleizeak ez daukala beragaz zer-ikusirik. Beste gauza bat da.

– Bai Mikel, guztiz ondo esana da ori. Eleizatxu au ez da ain antxiñakoa, baiña leioa askoz zarragoa da, bisigodoen tankerakoa. Zazpigarren gizaldikoa.

– Orduan, zortzigarren gizaldian Mungia kristiñaua zan?

– Ez neuke esango Mungia osoa, baiña auzo batzuk edo geienak bai. Gaiñera olako leio bat egin eta eleiza baten ipinteko, ez ziran une aretako kristiñau barriak. Ori zazpigarren gizaldikoa ba da, 600n.urtean emen kristiñauak ba zirala esan gura dau.

Baiña orain mezea egingo dogu eta gauza bat gura neuke zuk gaur batez be kontuan artzea. Erriak abesten dauan Gure Aita. Gure errian garrantzi aundia euki dau otoitz onek eta “paternosterra” esaten jakon: Illetan “Pater Noster”, jateko orduan, errezau egizu paternoster bat, zerbait bideinkatu edo norbait osatu nai danean, paternosterra.

Eta, gaiñera, gure eleizearen edestia idazten dabillen Latiegi’tar Bixente’k kristiñautasuna gure artera noz sartu dan agertzeko, beste itaun au egiten dau: “Noiz entzun zan lenengoz Euskalerrian Gure Aita?”.

Laster esan eustan Mikel'ek:

– Nor da diñozun Bixente ori?

Bixente Latiegi nire adiskide aundi bat da, adin aundikoa, bear ba'da larogeta sei bat urte, eta oraintxe diardu Eleizearen edestia idaztea amaitzen. Amar-bat tomo izango dira. Azterketa zeatzagorik!

– Liburu orreik irakurri nai neukez, baiña esaidazu labur-labur zer diñoan gaurko gaiari buruz.

– Bai. Pozik azaltzen dautzut au. Arduratzen nauan gaia da. Alboan au idatzikeran ipiñiko dodazen berbetan irakatsi gogoangarri oneik dakaz:

– 314n.urtean, Narbona-ondoan dan Elusa urian gotzaiña dago. Orduan 300n.urtea baiño lenago esan zan gure sendi euskaldunetan Gure Aita. Eleizetan, bear ba da latiñez Pater Noster abestuko zan.

– Or inguruan dan Agino errian 357n.urtean Gotzain euskalduna egoan.

– Baiña Narbona urrin dago, esan eban bereala Mikel'k, uri arek ez dauka zerikusirik Euskalerriagaz.

– Ai, Mikel! Esan neutsan. Lenago Euskalerria gaur baiño asko zabalagoa zan eta Lurrarte edo Mediterraneo itxasora arte eltzen zan. Elusa'n eta Agino'n orduan euskeraz egiten eben. Gero, urterik urtera, euskerea baztertzen joan dira eta, Inditarren antzera, "resebetan" mendietan aurkitu eban bere bizilekua. Gaur urira zabaltzea nai dogu, baiña... ez da erreza.

– Badiño ezer geiago Latiegi'k?

– Bai. Zazpigarren tomoa dan eta idazpuru lez "Euskal kristautasunaren sorkuntza" dauan liburuan, azkenean, auxe diño:

– Nok ekarri eban fedea Euskalerrira? Salerosleak, gudariak, lejionarioak,... edozeiñek. Guztiak ziran misiolariak.

– Zelan etorri zan? Isil-isilik, adiskide lez, iñor zigortu barik.

– Nondik? Narbona'tik, Tarragona'tik, Bordele'tik, Lyon'dik, Tolosa'tik, Martin deunaren gotzain-tokia zan Tours'tik.

Eldu da bai eldu, ain maite dogun fedea eta emen daukagu euskaldunduta.

## Elusa Eleiza euskalduna (Gaskuña'n, 314n. urtean)

Uri txikia da gaur, baiñan aundiagoa izan zan antziña artan. Bera bai zuten euskaldun akitaniar "Elusitarrek" uri nagusi. "Elusates" izan zan erromatarrek leiñu artako euskaldunei eman zieten izena.

Crasus izeneko Julio Zesar'en ordezkariak, menderatu zuan Elusa, Kristo-aurreko 66'garren urtea baiño pixkaren bat lentxeago, Julio Zesar'en "De Bello Gallico"k dionez.

Kristautasuna gure uri ortara noiz sartu zan ez dakigu. III mendean tinko erroturik zegoala, bai; III mendean kristautasuna bertara ugariki sarturik eta bertakoa egiñik egon ez ba'zan, ez bait zan 314'ean Arles'ko kontzilioara Elusa'ko gotzai bat joango. Izan ere, 314'ean ez bait zan Elusa'n gotzairik izango ere. Baiña bazan gotzai bat. Gotzai orrek Mamertinus, zuan izena. Eta Arles'ko kontzilioan egon zan.

Logikaren arau guztiak zintzoki betez aitor dezakegu beraz Eliz euskaldun bat bazala III mendeko Euskalerrian, kristautasuna gure artera aski goiz sartu zalaren adigarri.

• • •

Are geiago, III mendearen erdian ere, kristautasuna Elusa euskaldunean sarturik egon zitekeala esateko beste "arrazoi" bat ere badugu: Naiz ez osoki ziurra, bai aski itxura politekoa. Paterno izeneko Done batek bere martiriotzaren bidez damaiguna.

Bi Done aipatzen dira Elusa'ko Elizaren sorkuntza-arokoak: Luperko eta Paterno Doneak:

Kondaira batek dioskunez Paterno Donea izan zan Elusa'ko Elizaren sortzaillea. Eta Saturnino Tolosa'ko gotzai Doneak, Jondoni Satordi'k, bidali omen zuan III mendearen erdian Tolosa'tik Elusa'ra.

Paterno, Parterniano, Paternuzio ta Paterio izenekoak, 10 Done datozkigu "Bibliotheca Sanctorum" iztegian. 10 oietatik 3'k bakarrik izan zezaketen Elusa'rekin zer ikusirik. Baiñan iru oietatik ere ez digu batek bakarrik balio.

Iruetan aurrenekoa, Abranxes (Abranches)'ko Gotzaia, lekaide izan zan aurrena. Gero, orduan lekaide askoren artean oiturazkoa zan bezala, "eskale" biurtu zan, eta kristautasuna zabaldu naiez Skubilione zeritzan lekaidekide batekin bideetara irten zan, erriz erri ibilli zan ia "dana jentilla zan Galietako landa zabalean".

**Bixente Latiegi**

## Agino (Agen)
## (357n. urtean Phebade Gotzaiña)

Aurreneko lau mendeetan, dokumentuek ez digute Agino'rako gotzai bat besterik ematen; au, bai, ospetsua: Phoebadius, Donea. 357'an, 358'an) 359'n?, Agino'ko gotzai genduana.

"Il nous est imposible de savoir si la siège épiscopal d'Agen existait avant 357, date où apparait pour la première fois l'evêque bien connu Phebade": "Ezin jakin dezakegu, 357'aren aurretik Agino gotzai-uri izan zan edo ez; urte ortan agertzen zaigu aurreneko gotzaia: ondo ezaguna: Febadio".

Sinistekoa da, IV mendearen erdian Agino gotzai-uri izatera iritxi ba'zan, bere kristautasunaren erroak III mendekoak izango zirala. Ori bera adierazi nai digula dirudi Fides neskatillaren eta bere iru lagun martirien kondairak. Martiri oiek aginotarrak ba'ziran, eta IV mendearen lenen-lenen urteetan martiri il ba'ziran, uste izatekoa bait da III mendean sendo ta irmo sutraiturik egonen zala Agino'n kristautasuna.

**Bixente Latiegi**

## Euskalerrira kristautasuna

NORK?

Atzerritiko salerosleek, gudariek, lejioetara sartuta gero Euskalerrira itzulitako mutillek..., edozeiñek. Aro artan kristau oro bait zan mixiolari.

NOLA?

Ixil-ixillik, adiskidetasunezko giroan; Zigorketa-aroa bait zan ura, eta kristautasuna oiuka aldarrikatzen ibiltzerik ez bait zegoan.

NONDIK?

Galietako kairik garrantzitsuena zan Narbona'tik, Ispanietako uri nagusi zan Tarragona'tik (Iondoni Murtuts'en Tarragona'tik, Bordele'tik, Ireneo Donearen Lyon'dik, Tolosa'tik (Iondoni Satordi'en Tolosa'tik), Iondoni Martti'ren Turona'tik...

NOIZ?

II mendean, agian-agian-agian lenen izpiak;

III mendean ziur zegoan sarturik euskaldunen artera;

IV mendean, euskaldunen artean Eliza, ziurki, erakunde zan.

**Bixente Latiegi**

## ¿Cuándo se oyó por vez primera el “Gure Aita”?

**Antes de comenzar la breve narración nuclear de este relato, digamos desde cuándo somos cristianos los vascos en la historia.**

**Usando terminología de mi amigo y colaborador Vicente Latiegi, que está publicando en euskera la historia de nuestra Iglesia, diríamos: ¿cuándo sonó por primera vez en euskera, sea en el templo o sea en familias, el Gure Aita?**

**Porque resulta que es muy difícil responder cuando se pregunta sobre la fecha del ingreso del Mensaje de Jesús en nuestro pueblo: Unos, los que no son de los nuestros, dicen que tardíamente y quizá tengan razón. Se tardó mucho hasta que todos los vascos aceptaran la fe. Otros, de los nuestros, dicen que llegó muy pronto la evangelización, pero se refieren a los primeros creyentes vascos. Y así también tienen razón.**

**En Mungía concretamente, dentro del ámbito que abarca esta narración, encontramos recuerdos históricos a partir del siglo séptimo, pero es lógico pensar que antes de edificar, bastante antes, comenzaron a creer.**

**Con referencia a Euskalerria, que al comienzo de nuestra era se extendía hasta el Mediterráneo, nuestro Vicente Latiegi nos dice que el año 314 hay obispo vasco en Elusa, cerca de Narbona, lo que supone que por lo menos a fines de los 200 había cristianos vascos, porque el primer signo de evangelización no es precisamente tener obispo. Bastante antes del año 300 aprendieron algunos vascos el “GURE AITA” en euskera.**

**Que ¿quién trajo esa fe a Euskalerria? Pudieron ser comerciantes, soldados... cualquiera! Es la difusión llamada capilar.**

**Que ¿cómo llegó? Calladamente, de amigo a amigo ¡Había que librarse de persecuciones!**

**Que ¿de dónde entró? Lo mismo de la Narbona de los galos, como de la Tarragona de San Fructuoso, como de Burdeos o del Lion de San Ireneo o de San Saturnino de Tolosa o de San Martín de Tours.**

**Que ¿cúando ocurrió ese fenómeno tan suavamente revolucionario? En el siglo II los primeros destellos, en el tercero con cierta plenitud y en el siglo IV tenemos Iglesia organizada.**

# 3.– LEKAIDEAK ELEIZAN

Udako egun beroa zan eta Mikel'ek eta biok ibillaldi luzea egitea erabagi gendun. Nora?

Sarritan entzuna da Izaskun izena, eta ba-nekian Gipuzkoa'ko Tolosa'n egoala izen au eukan Andra Maria'ren santutegia. Araxe joateko urten gintzazan etxetik egun bero aretan: Emendik Elgoibar'era, gero Loiola igaro eta Errexil'dik Tolosa'ra eta uri eder au egoaldetik igaro eta, aldapa aundi bat igon eta Izaskun'era.

Zugaztitxu baten barruan dago santutegia. Alboan edatetxea eta ikuspegi eder bat, urren-urren Tolosa bera genduala.

Eleiza'ra ikustalditxu bat egin eta Andra Maria'ri abestu ondoren, alboko aurki baten jesarri giñan eta alkar-izketa gozoa asi gendun.

– Mikel! Zuk niri abadea esaten daustazu eta, antxiñako oiturea dan ezkero, ontzat artu bearko dogu emoten daustazun izen ori, baiña ba-dakizu nondik datorren erriko erlejiño-arduradun bereiziari abadea esatea?

– Ez. Ez dakit nondik datortzuen izen ori.

– Ara! Gure artera Barri ona etorri zanean, lekaideak izan ziran ekarle edo misiolari eta lekaideen buru danari esaten jakon orduan abadea.

– Baiña zer dira lekaideak?

– Erderaz "monje" esaten jake gaur. Emakumeak diranean "monja". "Monje" edo "monakus" monasterioan bakartadean bizi zanari esaten jakon eta euskeraz "lekaide" esaten jako "lekaro" edo basamortuan bizi danari.

– Eta zertarako bizi ziran olako gizonak bakartadean.

– Lenengo denporetan, antza, martiri ez izatearren. Erroma'ko agintari ankerrak kristiñau asko ilten eben eta askok, bildurrak eragin da,

basamortura iges egin eben. Gero, jazarkuntza ori baretu zanean, Jaungoikoagandik urrago bizi izateko eta otoitz geiago egiteko joaten ziran.

– Lekaideen aldetik gizarteari, eta Eleizeari batez be, onik etorri ete jakon?

– Bai. Mezede aundiak etorri jakozan munduari, Erdi-Aroan batez lekaideengandik: Lurra lantzen irakatsi eben, etxeak egiten be bai, liburu asko idatzi eta zabaldu eben... Ongille aundiak izan ziran.

– Eta Eleizarako?

– Itxaropenaren, geroko munduaren eta bizitza barri baten eredu lez agertu ziran eta gaiñera txirotasunean bizi izaten, otoitz-giroa zabaltzen eta kristiñau zintzo izateko eredu lez agertzen lagundu eben.

– Ba-daukagu lekaideen artean barriro gizartera etorri eta ezagun biurtu danik?

– Ez bat eta bi, asko eta asko izan dira olako gizon santuak. Aita Santu asko izan dira lekaide-etxeetatik etorriak. Lenengo San Dionisio Aita Santua izan zan. Au 259n.urtetik 268n'era izan zan Aita Santu. Eta gero Aita Santu ospetsuak izan dira lekaidetzatik etorriak, esaterako VII Gregorio. Eta Gotzaiñen artean ospetsuenak sortaldean daukaguz: San Juan Krisostomo, Naziantzo'ko San Gregorio eta beste asko.

Biblia-arloan, itzultzen eta azaltzen, ospatsuena izan zan Jeronimo Deuna be Lekaide izan zan Belen'en, Jesus jaio zan errian.

– Kristinauak baiño ez dira Lekaideak daukezanak ala beste erlejiño batzutan be ba-dagoz?

– Antxiñako itun zarrean profetak be alkartzen ziran olako bizikeran, esaterako Elias Karmelo mandian. Gero Jesukristo'ren aldian, esenitarrak ziran lekaide-antzekoak, onein artean Juan Bateatzaille santua. Eta oso ezagunak dira gaur Lama'k deritxen lekaideak.

Dana dala, Eleiztarrak diran lekaideak ez dauke zer-ikusirik antxiñako lekaide-antzeko orreikaz. Esenitarrak amaitu ziranetik 200 urte igaro ziran gure lekaideak sortu orduko. Eta Lama'kaz be ez dauke zer-ikusi bereizirik.

– Zelakoa zan lekaideen bizitzea?

– Eurengan agertzen dan gauzarik arigarriena norberaren gorputza zigortu eta menperatzea zan. Gu bigunegi bizi gara eta ez dogu errez

ulertzen arein jokabidea, baiña bizitza latz ori laguntza eben tentaldiak azpiratzeko, gorputza menperatzeko eta deabrua uxatzeko.

– Zelakoak edo zeintzuk ziran egiten ebezan penitentziak?

– Gauza bitxiak eta arrigarriak egiten ebezan eta ori obeto azaltzeko, euren artean ziran motak azalduko doguz:

– Stationarii edo egonzaleak. Oneik beti egoten ziran zutunik, lo egiteko be bai, beti isilik, beti begiak lurrera begira eta ogia basterik ez eben jaten.

– Dendritak zugatzen gaiñean bizi ziran, adarretan egon lekuak eginda eta iñoz ez jausteko kateagaz lotuta. XIII gizaldira arte egozan olakoak.

– Azemitak lo-bakoak ziran, baiña lorik egin barik ezin bizi. Orregaitik, txandaka, gau ta egun salmoak abesten ebezan.

– Bokoiak basoan bizi ziran, ezelako estalpe barik, lau-oinka ibilten, bedarra jaten... ardien antzera.

– Eroak: Oneik ez ziran zoroak, baiña zorakeri aundiak egiten ebezan jenteak barre egin eta zorotzat artu dagiezan. Ori egunez, eta gauez otoitz egiten eben. Simeon izena eukan bat eleiza batera sartu zan eta tiragomas baten bidez kandela guztiak amatau ebazan eta pulpitora igonik erritarrai arriak jaurtiten asi. Gaiñera gau baten emakume bat egoan gelara sartu zan onen senarra asarratu eta onek bera aurrean erabilli egian.

– Espetxekoak: Oneik txabola batera sartzen ziran eta antxe bizi urten barik. Bat 60 urtean egon zan olantxe jesarrita.

– Torre-zaleak: Torreetan bizi ziran, banaka, iruka naiz lauka, baiña beti bakoitxa bere gelan,otoitzean.

– Estilitak: Age-gaiñeetan bizi ziran, bide-kurutzeetan, andik igaroten ziranai Barri Ona iragarten. Andik iñoz jatsi barik. Santu ospetsua da olakoa zan Simeon Estilita.

– Lekaide guztiok banaka aurkitzen doguz, baiña ¿batzan bizi ziranak?

– Bai geienak batzan bizi ziran, itxas-gorri inguruan batez be edo Nilo-ondoko Tebaida’n edo Lekaideak dirala-ta ain ospetsua dan Kapadozian. Emengoak ziran len aitatutako San Krisostomo eta San Gregorio Naziantzo’koa.

– Jakingarria izango da lekaide areik zelan eratzen eben euren alkartea ta bizi-modua. Esan egistazu zelako taldeak diran eta zelan bizi ziran, batez be otoitz-giroan baiña baita ekonomi-arloan be.

– Alkartuta bizi ziran lekaide onein artean, zenobitak esaten eutseen, talde asko dagoz. Palestina ta Siria-aldean laurak esaten eutseenak, onein artean Hilarion eta Eutimio ospetsuak zirala, baiña gogoratu daiguzan San Pakomio'ren taldeak.

Lur-arlo aundi bat artzen eben eta inguru guztian arrizko esia egin, sartzeko atari bat baiño ez eukela.

Erdi-erdian eleiza aundi bat egiten eben, egun batzutan guztiak antxe alkartzeko, ospakizunik aundienak egiteko.

Eleizatik urrean jantokia egiten eben.

Talde aundia, talde txikietan zatitzen zan eta talde txiki bakoitxa 40 lekaidekoa zan. Olako lau etxek auzo bat osotzen eben eta Talde nagusiak guztiz 10 auzo eukazan.

Lekaide bakoitxak bere zeregiña eukan. Gogoratu daiguzan lanbide batzuk: arrantzaleak errekan arraiñak artzeko, euleak jantziak egiteko, okiñak ogia egiteko, artzaiñak ardiak zaintzeko, naizta aragi oso gitxi jan eurak, kanpotik etozanai emoteko be bear zan, lurgiñak ortuak zaintzen ebezan, arotzak egiten ebezan bear ebezan altzari apurrak eta zapatariak be ba-egozan oiñetakoak egiteko.



***Argazkia / Foto: H. Holbein***

Lekaideak barriona zabaltzen eben baita jakintza ta lana irakutsi be.

Eguasten eta barikuetan barau egiten eben.

– Ateraten ete eben jateko bear ebena?

– Bai. Eta askoz geiago. Saldu be asko egiten eben. Eurak jateko gitxi bear eben eta otoitz-aldi luzeak egin arren, ordu asko eukezan lanerako.

– Eta agintaririk ba-euken?

– Lekaideen agitariari abadea edo abata esaten jako baiña abat askoren gaiñetik egoan “Kongregaziño” edo Bazkun aundiaren agintaria Antximandrita izena eroiana.

– Eta lekaideak orrenbeste eta ain ondo eratuak izanik, ez ziran arriskugarri?

– Bai. Olakoak be jazoten ziran. Esaterako Efeso’n egin zan Eleiz-Batzar batera urreratu ziran euren katxaba aundiakaz eta bildurra sartu eben, Efeso’ko lapurketa esaten jakon batzarra menperatu arte. Orduan lekaide gizajoak ez eben zuzen jokatu.

– Abadea! Naikoa luze joaku alkar-izketa arduragarri au eta gaurko emaitzeko esan egistazu zein dan esan dogun guztiak Euskalerriko eleizeagaz daukan zer-ikusia.

– Lekaideak gure erri-ondora be etorri ziran eta emen asko ugaritu. Ori izango da urrengo gaia. Baiña, batez be, au dana esan dogu ona etorri ziran “abadeak” edo misiolariak nondik norakoak ziran jakiteko.

Solas-aldi luzea egin ondoren, geure berebilla artu eta Izaskun’go Ama’ri agur egin ondoren etxera biurtu gintzazan.

## Breve historia de los monjes en la iglesia

**En los pueblos de Bizkaia, no sabemos desde cuando, damos a los sacerdotes el nombre de “abadea” equivalente al castellano de “abad” aunque hoy viene a ser sinónimo de “sacerdote”. Quizá este nombre sea señal de que hemos sido evangelizados por monjes.**

**No sabemos desde cuándo se llama así a los sacerdotes, pero lo cierto es que al primer sacerdote conocido de Mungia en los manuscritos de San Millan de la Cogolla, año 1050, se le llama el “Abad Munio”. Recuérdese que Munio es nombre vasco que**

viene a significar “colina”, palabra, por cierto, que ha dado en castellano “moño” que es, por tanto, de origen vasco, como “txapela” es de origen latino, derivado de capela o capa pequeña. ¡Interesantes misterios que guardan las lenguas que son portadoras de culturas!

Por tanto, parece justo que antes de entrar a nuestra raíces, hagamos un breve estudio de los monjes.

Por monje o monja se ha entendido una persona apartada del mundo y dedicada a la contempliación de Dios, naturalmente, dedicándose también a buscar el sustento o en la mendicidad y en trabajo fundamentalmente agrícola.

Esta forma de vivir es muy antigua. Antes que el cristianismo existe en los lamas del Tibet y en los esenios judíos, pero no son sucesores. Desde la desaparición de los esenios pasaron 200 años hasta que aparecieron nuestros monjes.

Parece ser que al principio era forma de escapar a las persecuciones, luego fue el gusto por la contemplación de Dios hasta que se convirtió en una forma de vivir.

Podemos considerar a los monjes como artífices de Europa. Ellos enseñaron a los bárbaros que invadieron el Imperio Romano a edificar las casas, como edificaban sus monasterios, y a labrar la tierra como ellos la labraban. Y además fueron portadores de libros y grandes escritores y copistas.

Hacia el siglo VI San Eulogio de Córdoba visitó monasterios vascos, entre otros Leire. Se fue asombrado de la piedad y de la cultura de los monjes y del gran número de los mismos, y su biblioteca, como lo indica en una carta que escribió de allí una vez vuelto a su casa.

De comunidades monacales salieron muchos religiosos que fueron famosos Papas y Obispos. Entre los muchos papas monjes recordemos al primero de ellos que es San Dionisio, años 259-268 y a los famosos Gregorio (I y VII). Y entre los muchos obispos a San Juan Cristóstomo y los santos Gregorio Nacianceno y Niseno.

Nadie puede negar el servicio de otro monje de Belén que tradujo la Biblia más usada y llamada Vulgata. Nos referimos a San Jerónimo.

**Respondamos a otra posible pregunta. ¿Cómo vivían los Monjes? Y responderemos citando clases de monjes que nos recuerda nuestro amigo Vicente Latiegi, sacerdote, en su monumental Historia de la Iglesia (en especial la vasca), que tendrá 10 tomos gruesos cuando se acabe. Ya existen ocho. Todo en euskera.**

**Son muy sorprendentes los estilos de monjes. Veamos.**

**– Estacionarios: Estaban siempre de pie, aun para dormir, siempre en silencio, mirando al suelo, alimentados casi exclusivamente de pan.**

**– Dendritas: Vivían en los árboles, entre ramas, a veces atados para evitar la caída.**

**– Acemitas: Esta palabra quiere decir que no duermen, pero en realidad cantaban el oficio día y noche, por turnos.**

**– Bocones: Vivían en bosques, sin casa, andando a cuatro patas y alimentándose de hierba como algunos animales.**

**– Locos: Se hacían los locos para ser despreciados y hacían extrañas locuras para lograrlo y de noche dormían. Se dice de un tal Simeón que entró en una iglesia con tiragomas y apagó todas las velas. Luego subió al púlpito y siguió disparando al público de mujeres. Además una noche entró a un tálamo nupcial para lograr la persecución del esposo.**

**– Encarcelados: Entraban en una pequeña habitación y no salían jamás. Se sabe de uno que estuvo así 60 años.**

**– Turrícolas: Éstos vivían en torres, unas veces solos y otras acompañados en la misma torre pero siempre en vida totalmente solitaria, dedicándose sólo a la oración.**

**– Estilitas. Vivían sobre columnas debidamente preparadas con cemedor y servicios. Se instalaban junto a cruces de camino y predicaban evangelio a todo transeunte.**

**Aunque todos éstos son solitarios, también existían cenobitas, de vida en común.**

**Estos tenían una organización admirable. Abundaban en Palestina y Siria, pero se difundieron por todo el mundo. De este estilo será nuestro Protagonista, Milian, del cenobio de Acosta, muy antiguo. Son sus antecesores San Hilarion, San Eutimio, San**

Pacomio y otros. Por este camino aparecerán San Benito, San Mauro, San Bernardo, etc., más tarde.

He aquí la organización visible, aparte de las reglas: Una iglesia grande en el centro, un comedor grande muy cerca, una biblioteca, monjes con su abad en grupos de 40. Cuatro de estos grupos era el barrio y 10 barrios componían lo que se llamaba Congregación y presidía un archimandrita.

Ayunaban los miércoles y viernes y apenas comían carne.

El fruto de su trabajo en el terreno amplio, rodeado con una gran muralla, era muy superior a lo necesario para su sustento y vendían, aunque el dinero quedaba indefectiblemente a disposición del Archimandrita.

A veces los monjes han cometido errores y han sido un peligro: Recordemos el latrocinio de Efeso que fue un concilio monofisita en contra de la fe del Concilio. Se presentaron armados de enormes bastones.

He ahí una base para comprender el Cenobio de Acosta y la vida de Milian y sus hermanos monjes.

# 4.– LEKAIDE-ETXEAK EUSKALERRIAN

– Zu, Mikel, udaldian gagoz eta auxe da sasoirik egokiena urteerak egiteko: Egun luzeak, egualdi onak, bideetan naikoa lasai. Gaur beste urtera bat egin bear dogu. Beti lez, jakiña, jakintzagaz zer-ikusia dauana.

– Ni beti nago gertu olako urtenaldiak egiteko, baiña nora joango gara gaur?

– Ba-dago Euskalerri'tik urrean toki gogoangarri bat, gure edestian ikutu aundia izan dauana eta beste jakingarri askoren iturri doguna. Kukula'ko Donemiliane da au. Ni gaur araxe joango nintzake.

– Asko poztuten nau ibillaldi onek. Goazen ba.

– Eta, gaiñera, bidea naikoa luzea dogu eta goazela jakingarri asko azalduko dogu gai oneri buruz.

– Zein izango da gaia?

– Beste egun baten azaldu gendun zer ziran lekaideak. Euren bizitza aztertu gendun, baiña an urriñean. Gaur, Donemiliane'n Eskalerri'tik urrago aurkituko doguz lekaideak.

•••

Artu gendun ba gure bereil zintzoa eta Mungia onetatik urten eta Arratia'tik zear, Barazar-gana igaro eta, Gasteiz ezker-aldian itzi ondoren, Kaltzada'ko Txomin errira eldu giñan eta andik Trizio'ra sartu eta beingo baten eldu giñan Berzeo'ra. Baiña mendian gora asi baiño len agertu daigun bideko alkar-izketa.

– Mikel adiskide! Lenengo ta bein ez aiztu iñoz esan dogun egi aundia: Lenago Euskalerria gaur baiño askoz zabalagoa zala. Geiago: Lurrarte itxasoraiño eltzen zala. Orregatik gaur ikertu bear dogun Donemiliane be Euskalerria'ren barruan egoala.

– Eta zergaitik ez da Euskalerria aundiago egiten, beste erri batzun antzera?

– Ba-dago orretarako errazoi sakon bat: Euskaldunak ez garala iñoz izan iñoren lurrak eskuratzen zaleak, baiña inguruko erriak, gaur arte, egarri lotsagarri ori dauke: Iñoren lurrak arrapatzeko egarria. Orregaitik inguaruan izan dan erri bakoitxak atal bat, aundia edo txikia, kendu dautso gure erriari eta orain Alkartea Bizkaia, Gipuzkoa et Araba gara. Naparroa ez dala Euskalerria? Edo iparraldeko Laburdi, Benabarra ta Zuberoa ez dirala Euskalerria? Bai ba-dira, baiña zur ba'zagoz laster konturako zara gaur kendu egin gura dauskuezala. Araba bera be bai Mozkera'ren antzekoren batzuk! Baiña goazen arira.

– Egon ete ziran ba lekaideak Euskalerri zabal onetan?

– Euskalerri zabal ori alde batera itzita, Araba artuko dogu, batez be, eta Apur bat Euskalerria izan zan Logroño. Gero zeozer esango dogu Bizkaia'ri ta Gipuzkoari buruz.

– Euskalerrian gaur monastegi oso gitxi dagoz, baiña lenago?

– Adiskide! Jakitun bi artuko doguz lagun azterketa au egiteko. Oso jakitunak!

Latxaga da bata. Onek Araba'ko monastegi zarrak aztertu dauz. Latiegi adiskidea da bestea. Onek Eleizearen Edestia idatzikeran zabal eta luze aztertu dau Euskalerriko Eleizearen edestia eta auxe da berak diñoskuna:

"Orainxe ari naiz Euskalerriko monastegien arazoa aztertzen eta oraingoz gauza arrigarri bat agertu zait: Euskalerrian monastegi asko be asko izan zirala. Bizkaitik urren dagoana, Ubede'tik lau-bat kiliometrora, Akosta'koa da bat. Izena aldatuta agertzen da, baiña argi dago monastegi oso ospetsua izan zala Zigoitia'ko erritxu onetan".

Baiña Araba'ko monastegiak zeatz aztertu dauzana gure Latxaga Euskerazaiña izan da. Onen billaketa-lanak Retana'ren "Euskal Enziklopedi Aundia"n agertu dira eta eskuartean daukagun liburuan Anes Arrinda'k agertzen dauz "EUSKALDUNAK ERROMA JAUSI ZANETIK KRISTAUTASUNERA BIDEAN (V-X gizaldiak)" deritxon liburuan.

– Abadea! Olako billaketa-lanak bai bearrezkoak doguzala!

– Bai orixe! Zoriona eta eskerrak olako gizonai.

– Esaidazu labur-labur Latxaga'k diñoaña.

– Latxaga'k bere billaketa-lanean diñozanak arrigarriak dira.

Trebiño'ri esaten dautso berak Euskalerriko Kapadozia, antxe dagoalako lekaideen errasturik geien eta argienak: Soloen izenak, alkartegien ondakiñak, baseleizak eta aberastasun gogoangarria.

Ba-dagoz beste lekaide-toki batzul be: Baldegobian, gaurko Angosto'tik urrean, Kanpetzu'ko Erroman deuna errian. Albelda'n (emen dago laster ikusiko dogun Donemialiane), Peñazerrada'n... Eta gaiñera bizigoten aldiko eleizak be ba-dagoz, monastegi antzekoak euren aldian, Zalduendo'n, Araia'n, Aro'ko Santelizes'en eta Donemiliane'n bertan.

Benetan arrigarriak dira or aitz-zuloetan aurkitzen diran agoillun aundiak, antziñako bakartien sarrera diran zuloak. Bide zabaletik ikusten dira.

– Eta Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n zer? Ez ete zan izan lekaiderik?

– Eskualde oneitan ez da egin billaketa sakonik, baiña agertzen dira susmagarri diran izen batzuk, santu errikoiak. Ez ete ziran lekaide bakartiak?

Esaterako: toki askotan ezaguna dan Santi Mamiñe edo Araoz'en, Arantzazu'ra bidean, dagon San Elías eta ainbat lekutan aitatzen dan Garazi deuna...

Eta geiago esan bear: Gure baseleizak sarritan etxe baten, bizileku baten, barruan dagoz. Ez ete zan an bizi lekaide bakarti bat? Gero beste izen oneik agertzen dira: Freila, Ermitaño, serora... Eta Zeanuri'ko liburu zarretan irakurri dot bateoetako aitabitxi Abad bat izaten zala. Asterriko abata, Alzusta'ko abata, San Lorentzo'ko abata eta baseleiza oneik gaiñean bizilekua dauke. Zer da guzti au? Noiz aztertuko da?

Beste monastegi antzeko bat millagarren urtea baiño lenago beintzat, Ziortza'n izan dogu gizaldiak zear. Antxe daukagu, zorionez, Patxi Elgezabal adiskidea buru dala, Monastegi bakarra, Txomin Bereziartua'k eta Felix Aretxaga'k bultzatuta eta Donosti'ko Gotzain dogun Uriarte'tar Joan Mari adiskidearen alegiñaz eratuta.

Atan orretan, eldu giñan Berzeo'ra eta esan neutson Mikel'eri.

– Mikel adiskide! urreratu gara Donemiliane'ra. Berzeo'n gagoz. Emengo abadea zan Gonzalo de Berzeo gaztelerazko lenengo olerkaria. Onek ba-ekian euskera, berak edo gurasoak beintzat. Bere bertsoetan euskereak bereak dituan berba oneik agertzen dira, Latxaga'k diñoanez "Errioxa'ko San Millan euskal iturri" deritxon liburuan: Ardura (10), Asmar (80), zatiko (2), aina (34), trebeio (4), Arlote (2)

Don Bildur (1), hascas (1), landes (1) tokiella (1), zankaiada (1), sin olio (6), otero (2) Basca (1) Azkona (1).

– Eta Donemiliane bertan euskeraz egiten ete eben?

Emen inguruetan bizi ziranak beroiak ziran, erdi-euskaldunak, baiña lekaidetxeko otoizlariak lerro artean edo alboan, latiñezko berbea ulertzeko euskerazko berbak, azalpenak edo “glosak” idatzi ebezan: “Izioki” eta “Guek ayutu ez dugu” Orduan, latiña baiño obeto ulertzen eben euskerea. “Dugu” orrek adierazten dau, gaiñera, euren euskerea ez zala Bizkai’koa, emen “dogu” esaten da. Eta ez Gipuzkoa’koa be, emen “degu” esate dabe. Naparroa’ko euskerea da erabiltzen ebena: dugu.

– Baiña euskaldunak ba’ziran, toki-izenak orain be agertuko dira?

– Bai, adiskide! Eta asko agertu be. Ona emen Latxaga’k dakazen batzuk: Tartarona, Lizarde, Artazar, Benegorra, Urre, Gallantzuri, Artaza, Iruela, Junjurdana eta abar. Iturriak be bai: Txurrita, Santirde, Kikazo, Gorrutxo. Eta bedarren izenen artean Berro, olaga ta olakoak. Eta Santuak, Oria, Munio edo Muño. Eta abizenak: Urzai, Ureta, Agirre, Lejarraga.

– Ai, abadea! Gure errietatik ur-urrean geratzen jakuz lekaideak antziñako aldi areitan. Orain bai ulertzen dala euren indarra fedea guganatzeko!

– Bai, orixe. Fedea ta erlejiñoa berez dira zabalkorrak eta ain urrean olako su aundi bat ikusten dogunean, guk au esan bear dogu: Sua eta txinpartak ain urrean egon ezkero, nai ta naiez zabaldu bear izan eban suak. Milian abadea gure edestian ba-da nor edo nor.

•••

Donemiliane berak garizumea igaroten eban atx-zulo aren aurrean egin gendun otoitz: “Milian abadea, zaindu egizu Euskalerria”.

## Monasterios en Euskalerria

**Un día largo y caluroso de verano nos acercamos a San Millan de la Cogolla.**

**Durante el camino mi amigo Mikel y yo conversamos largamente sobre monjes de Euskalerria.**

**Partimos de Mungia y a través de Arratia, superado el puerto de Barazar, dejando más tarde Gasteiz-Vitoria a la izquierda, llegamos a Santo Domingo de la Calzada y pasado el pueblo de nombre tan significativo como Tricio, entramos en Berceo que nos recuerda al primer poeta castellano Gonzalo.**

**Pero antes de comenzar la subida a San Millan de Suso, resumamos el contenido de la conversación entre mi amigo Mikel y yo.**

**Hemos recordado los tiempos en que Euskalerria era mucho más amplia que hoy, para comprener que en su tiempo San Millan era Euskalerria. Sí: Los vascos nunca hemos sido conquistadores como los pueblos que nos han rodeado, que estuvieron siempre sedientos de quitarnos tierras, siendo dignos representantes los visigodos cuyos reyes todos decían en sus crónicas "domuit vascones". Hoy estamos arrinconados como indios en sus reservas y aún hoy sufrimos oyendo que nos quitan los tres territorios del norte o Nabarra y algún audaz como Mosquera trata de independizar Alava.**

**Pero vamos al grano.**

**Hoy hay muy pocos monasterios en Euskalerria, menos de monjes que de monjas, pero ¿antiguamente?**

**Dejémonos guiar para dar respuesta por dos amigos sabios: Latxaga y Latiegi.**

**Latxaga ha hecho ya un estudio profundo y detallado de los monjes en Alava. Y he aquí lo que nos dice Latiegi:**

**"Estoy ahora examinando el fenómeno monacal en Euskalerria y me he encontrado con una realidad asombrosa: En Euskalerria hubo muchísimos monasterios. Desde Bizkaia el más cercano es el de Acosta de Zigoitia, pueblo limítrofe con Bizkaia en Ubidea. Es seguro que existió, incluso quedan restos, y fue un monasterio muy famoso, aunque el nombre a veces varía".**

**Admiración y gratitud a los investigadores. Pero pasemos a Latxaga.**

**He aquí algunas de sus revelaciones asombrosas en la Gran Enciclopedia Vasca:**

**– Llama a Trebiño la Capadocia Vasca.**

**– Hay otros lugares habitados por monjes: Valdegobia, San Román de Campezo, Albelda, Peñacerrada...**

**– Abundan iglesias de estilo visigótico que posiblemente fueron monasterios: Zalduendo, Araya, Haro con Satelices, San Millan...**

**Desde la carretera suelen verse rocas agujereadas con boca oscura.**

**En Bizkaia y Gipuzkoa no se ha investigado, pero hay restos de iglesias visigóticas, algunas en Mungia. Hay que recordar, además, nombres de Santos populares como Santimamiñe en Bizkaia, San Elías en Araoz, camino de Aranzazu, y Done Garazi o Santa Engracia que es frecuente.**

**Algo más habría que añadir: En muchas ermitas se conserva el recuerdo de un ermitaño o freila o serora que tiene su casa. ¿Qué personajes eran éstos? ¿Qué relación tenían con los cenobios? ¿Sólo económica?**

**Recuerdo que en los libros parroquiales de Zeanuri, hacia el siglo XVII aparece con mucha frecuencia: “Fue padrino el abad de Asterria o el abad de Alzusta o Uribe o San Urban... ¿Qué abades eran éstos? ¿Simples recaudadores? Pregunté en el seminario de Vitoria en el homenaje a Lekuona y Barandiarán (año 1979) a D. Andrés Mañarikua, que no supo darme respuesta. ¡Hay que investigar urgentemente!**

**Hay una colegiata en Bizkaia, a partir del año 1000 (más o menos) que es algo parecido a un monasterio con abad incluido, el de Cenarruza. ¿Qué fue exactamente? Hoy está restaurado gracias al empeño de Txomin Bereziartua y Felix Aretxaga, bien respaldados por el hoy Obispo de San Sebastián, mi buen amigo D. Juan María Uriarte. Es el único monasterio de monjes en Bizkaia.**

**Burla burlando, Mikel y yo hemos llegado a Berzeo: El cura de aquí, Gonzalo, de quien hemos hablado, es un testigo del euskera de su pueblo y de su familia. Latxaga nos recuerda palabras del euskera que utiliza este escritor en castellano: Ardura (10), asmar (80), zatiko (2), aina (34), trebeio (4), arlote (2), Don Bildur (1) Hascas (1), Landes (1), tokiella (1), zancaida (1), sin olio (1) otelo (2), basca (1), azkona (1).**

**Hay además una prueba inequívoca de que los monjes de San Millan conocían mejor el euskera o castellano naciente que el**

**latín: Para explicar las palabras difíciles del latín utilizan glosas de las que dos están en euskera: "izioki" y "ayutu ez dugu". Nosotros apenas podemos vislumbrar el significado de ambas expresiones, pero sí que son del dialecto vascón o nabarro: No dicen "dogu" ni "degu" sino el "dugu" nabarro.**

# 5.– BERRIAGA’KO ERRI ZARRA

Mikel! Ator! Gaur ibillaldi luze bat egin bear joguk oiñez. Beti berebillean ibiltea be ez ei dok ona.

– Bai! Baiña nik beintzat jateko kopautxu bat eroango dot. Basoan gosetu egiten naz eta or, eguerdi-aurrean, ondo be ondo sartzen da janaria, obeto edari apur bategaz buzti ezkero.

– Gure leiotik begiratu ezkero, or aurrean ikusten da Berriaga mendia. Ori azken muiñoa da. Baiña mendia Gaztelumendi’n asten da eta atxispe, Urrezti ta Gamiz-mendi oiñez egin ezkero, ordu pare baten goaz Gaztelumenditik Berriaga’ra, gudan burdiñezko Garrikoa zana dana oiñez igarota.

Baiña ez ikaratu! Berebillean joango gara Gaztelumendi ondora eta gero, atzera bertara etorri eta berebillean etxeratuko gara.

– Amari eskatu bear dautsat, arren, kopautxu bat gertatu daiskula biontzat.

– Eskerrik asko, Mikel. Nik zatoa eroango dot ardaoz beterik.

•••

Goizeko baderatziak inguru ziran. Ordu orretarako esanda egoan lez, etorri jatan Mikel zidarrezko azal baten barruan biontzat kapaua ekarrela. Nik be nere zaatoa bete neban ardau gozoz.

Beste barik sartu gintzazan geure berebillean eta, Gamiz neure erri maitea igaro-ondoren, Fika’ra eldu giñan. Emen ezkerrera bidea artu eta laster aldapa aundi bat aurkitu gendun. Gora eldu baiño lentxuago gelditu giñan andik agiri zan ikuspegi ederra gozatzeko.

Ikuspegi zoragarria benetan, oñetan Fika polita eta ikuspegia zabalduz mungialde osoa. Benetan ikuspegi zoragarria.

Barriro berebillera sartu eta goraiño eldu gintzazan.

Lenengo Gaztelumendi’ko oroigaillua ikertu gendun: 36’ko gudan, 37n.urteko San Antonio egunean, gitxi gorabera, emendik

sartu ziran arerioak Burdiñezko Garrikoa austeko. Ondo ekien nondik sartu, Garriko ori egin zanean asmatzaille edo injenieru izan zan Alejandro Goikoetxea'k planoak beste aldera igaro ebazalako. ¡Espioiak emen be!

Alejandro au Elorrio'tarra zan eta erri onetan Ikastola bat euki dau bere izenean eta orain izen ori kendu egin dautsoe ikastoleari. Naizta Goikoetxea asmalari ona izan, talgo trenaren sortzaillea, Burdiñezko Garriko orretan egin eban etoikeria naikoa zalako izen ori kentzeko.

Goibeltasunez oroitarri ori ikusi ondoren, oiñez joan giñan barriro berebilla egoan tokira, Gaztelumendi'tik Urrezti-gaiñera, eta geure janari edariak artu eta Berriaga'rantz abiatu giñan.

– Mikel adiskide: Oraintxe laster, zugatzak urritzen diranean ikuspegi eder bi daukaguz, bata ezkerrera Txorierri'ri dagokiona eta bestea eskoikoa, Mungia-aldeari dagokiona. Iñoz entzun da Egazkin zelaia Sondika ta Loiu'tik kendu eta ementxe gaiñean egiten dabela. Eta ondo asmatua da, baiña ez neuke nai. Mungialdean zaratak izango gendukez eta gaurko bakea da obea. Baiña bear ba'da, askoren onerako ba'da, egin dagiela.

– Ez dot iñoz entzun egazkin-zelaiaren asmakizun ori. Emen errez egin lei mendi-gaiñea apur bat leundu ezkero, baiña dagoala dagon lekuan.

– Mendi-bizkar onetatik goazela, astiro eta estutasun barik, gogoratu daigun Berriaga'ren edestia. Mendi-bizkar au amaitzen da lekua da Berriaga.

– Zer aurkituko dogu Berriaga'n?

– Erri zar baten ondakiñak: orma luze bat erdi-jausita eta etxeak izandako ondakin dirudien batzuk.

– Ba-dakizu nortzuna zan erri ori? Euskaldunak ziran?

– Ez ba. Ez ziran euskaldunak, Mikel. Ez beintzat erri orretan lenengo bizi ziranak. Bear ba'da Kristo baiño eundak urteak lenago. Olakoxe lekuetan kokatzen ziran indoeuropearrak esaten jaken erri orreik, muño txikietan, ez iñoz bean.

– Nondik dakigu orma ondakin orreik indoeuropearrenak dirala?

– Etxea egiteko eratik lenengo eta gero or agertu diran ontzietatik. Oneik buztinezkoak dira eta erromatarren zeramika sigilata deritxe-

nak. Etxe-ondakiñak eta ontziak kontuan artuta ateraten dabe jakitunak Kristo'ren aldi inguruko erria izan zala Berriaga'koa.

– Noiz arte iraun eben or indoeuropear orreik?

– Indoeuropearrak eta keltak erromatarrak agertu eta laster joan ziran inguru oneitatik. Iñok ez daki zergaitik.

– Eta gero?

– Ba, gero erri ori euskaldunak artu eben eurentzat eta ortxe bizi ziran. Mungia'ko Billella sendiak be or agertu eban bere aunditasuna eta ortik Laukariz'era igaro zan sendi onen almena.

– Eta itzi dabe ondorenik euskaldun areik eta Billelatarrak.

– Bai. Sei krismoi agertu dira or zazpigarren gizaldi ingurukoak eta Bilbo'ko Erakustetxean dagoz. Kristiñauen arriak dira krismoiak eta kurutzea dauke X eta P alkarren gaiñean dirala.

– Eta Billelatarrak?

– Arri idatzi bat egoan or. Orain ez da iñon agiri, baiña Henao edestilariak diño berak ikusi ebala. Arri orretan urtea egoan, Kristo'ren ondorengo 70n.urtekoa eta idazki au: "Belilla serva Jesuchristi". Arri ori benetakoa ba'litzan, Berriaga'n egon zan lekaimeren bat, Jesus beraren mirabe izana, eta ori 70n.urtean. Ori edesti aldetik eziña dan lez, batzuk esan dabe Billela'tarrak asmauriko gauzea dala, orrelan euren sendia goratzeko. Or daukagu edestiaren eskutuki bat.

– Gauza jakingarriak benetan. Gogoangarria Berriaga'ren edestia!

– Eta ez aiztu Jentil edo basajaun orreik oso jakitunak zirala eta eurak irakatsi eutsela euskaldunai garia ereiten eta zura ebagiteko serrea egiten. Martin Txiki agertzen da euren zaindari.

– Eta gero kristiñauak!

– Bai! Eta oso antxiñako kristiñauak. Olako sei krismoi egoteko!

•••

Berba ta berba igarri barik eldu giñan Berriaga'ra eta inguruak ikusi ondoren gure kopaua artu gendun eta zaatoa idegi. Jan-edanean jarraitzen dogun artean, nik, idazle lez, ango barriak emongo dodaz.

Antxiñako baseleizea jausita dago, sasi-artean ostenduta. Orma zarrak ganora barik, dana zikin eta armin.

Zergaitik ez ete dabe obeto zaintzen edesti-giroko toki au?

Galdera ori egin neutsan oraintsu Aldundiko arduradun bateri eta eziñak lotze dauzala esan eustan. Antza jabetasuna da banakakoena eta ezin kendu jabetasun ori.

Orra or zertan geratu dan gure ume-denporan pozik egiten zan Ezkurra'ko Bartolome deunaren jaia. Alboan dago basaleiza barri bat Derio'tarrak eta Geldoetarrak egiña. Baiña lengoa da zaindu bear dana!

Or daukagu ba gertu, geure begien aurrean, Euskalerrira misiolari datorren Milian abadea artuko dauan erria. Ez dago urrin, 60 km. ingurura, Zigoitia'ko Akosta eta antxe egoan monastegi aundi bat. Andik etorri ete zan Milian?

## Pueblo indoeuropeo en Berriaga

**Un paseo más. Esta vez a pie.**

**Llegados en nuestro coche al alto de Urresti, a partir de Fika, despúes de pasar mi pueblo natal de Gamiz, dejamos el coche y caminamos a Gaztelumendi a visitar el triste monumento que nos recuerda el Cinturón de Hierro de Bilbao, que fue fácilmente roto gracias al espionaje del ingeniero Goikoetxea a quien veíamos con alguna frecuencia mientras se construía el Cinturón. Este Goikoetxea, de triste recordación, pasó al enemigo los planos. Habría que investigar el asunto mientras hay testigos. Fue el mismo Goikoetxea inventor del Tren Talgo, juntamente con Oriol. Le dedicaron una ikastola en su pueblo natal, Elorrio, pero hoy le han quitado, con razón, este nombre a la ikastola.**

**A partir de este lugar fuimos caminando por la cumbre hasta Berriaga.**

**Berriaga es una pequeña cumbre, como tantas sobre las que los celtas construían sus castros. Allí también existió una de esas poblaciones cuyos restos aparecen. Son de la Edad de Hierro, contemporáneos al Nacimiento de Cristo.**

**Esta población indoeuropea desapareció hacia el año 200 y quedaron allí los vascos como dueños de la situación, aunque sojuzgados, más o menos, por el Sr. de Villela de Mungia.**

También se han hallado allí seis crismones, del siglo VII, y una estela dedicada a Santa Belilla, servidora domética del mismo Jesús y que señala la fecha hacia el año 70. Esta piedra que la vio entre otros el historiador Henao, ha desaparecido. Parece ser que era una invención de la arrogante familia Villela. Imposible que en fecha tan temprana, año 70, hubiera algo cristiano en Berriaga.

Los habitantes del antiguo pueblo de Berriaga eran gentiles, llamados por los vascos basajaunes. Eran más cultos que el resto de pueblos y conocían el cultivo del trigo y la sierra de hierro que nos recuerda el patronazgo de un santo llamado San Martín txiki. Es este ambiente al que va a entrar nuestro protagonista Milian.

# 6.– MILIAN ABADEA BERRIAGA’RA

Zigoitia Araba’ko lurralde zabala ta leuna da eta aran onen erdi-inguruan erri polit bat dago: Akosta, Bizkaiko Ubide’tik lau km.ra.

Akosta’n egoan oso antxiña Monastegi eder bat: Mendi-barrenean eleiza ederra, alboan jantoki zabal eta apala, inguruetan, an or emen, olatxuak: ogigintza, oskigintza, eulearena, ardi-tokia, zalditegia ta olakoak.

Alboetara bide zati batzuk egin ezkero, edozein aldetatik, lekaideen auzoak aurkitzen ziran eta, erleak euren erlontzian lez, guztiak ebiltzazan lanean edo otoitz egiten. “Ora et labora” euren ikur zan esaldia. Batzuk arraiña ekarten eben, beste batzuk malluki gozoak eta baratxuriak, beste batzuk errotara eroan eiotako artoa... “Kongregaziño” aretan ez egoan ezeren bearrik, bai ostera ainbat gauza saltzeko.

Udako egun argitsu eta zoragarri baten lau lekaide urreratu ziran zalditegira eta bakoitxak bere zaldia bear dan lez jantzi eta zaldi-gaiñera igon eta bizkor-bizkor urrindu ziran lekaide-etxetik. Braulio, Bixintxo, Laurentzio eta Milian ziran. Laurak artu eben misiolari-lana egiteko agindua, bakoitxak bere abatagandik: Itxas-alderantza joan eta bitarte orretan ziran lurraldeetan Barri Ona iragarri bear eben.

Ubidea igaro-ondoren, Barazar-gaiñetik bera jatzi ziran, zalpurdiak eginda euken bidetik eta Zeanuri’ra eldu ziranean, Braulio itzi eben erri onetan Arratia’n Barri Ona zabaltzeko arduradun lez.

Beste irurak aurrera jarraitu eben eta, Bedia ta Galdakano atzean itzi ebezenean, laster eldu ziran Larrabetzu’ra eta emen itzi eben Bixintxo Txori-erri osoan Barri Ona iragarri egian.

Larrabetzu’n bertan geratzen ziran biak bakoitxak bere bidea artu eben: Laurentzio joan zan Morga-gaiñerantz eta andik Gernika-alde-

ra, Milian ostera, Gaztelumendi'ra igon zan eta andik, gaiñik gain, entzute aundikoa zan Berriaga'ra urreratu zan.

Gaba zan, edo illun-nabarra beintzat, Milian Berriaga'ra eldu zanean: Etxe txiki batzuk, arrizko oiñarriak eta zurezko ormak eukezala, etxeen artean enparantza antzeko txiki bat eta atarteetan estalpetxuak. Illuntze aretan ikusi ebazan norki batzuk: Gizon aundiak eta argalak, andere txikiak eta lodiagoak, ume argal eta zurrak... baiña ez eban iñor ezagutzen eta ez zan auzartu iñogaz berba egiten be. Eguna argitu arte, egun aundia zan izan be erri arentzat eta Bizkai osoarentzat, Barri Onaren Egun sentia, eguna argitu-arte, diñot, orma baztertxu baten lo egin eban, zaldi gaiñean ekarri ebazan estalkiak gaiñean ebazala.

Eldu zan goiz pozgarria, Barri Onaren goiza!

Lenengo argi-izpiakaz batera agertu ziran etxe-artean lenengoak: Azoka-eguna zan eta alboetako etxeetatik ekarritako gaiak egozan salgai.

Erosleak eta saltzailleak ugari alkartu ziranean, an agertu zan Milian gizajoa: Zer esango eban? Ango izkuntza ez ekiala, zelan esango eban?

Bera be erosle bat ba'litz lez, azokara sartu zan. Indoeuropear areik egiten eben izkuntza ez eban ulertzen. Ba-ziran an beste izkuntza bat egiten ebenak be, euskaldunak, eta onei be gitxi ulertzen eutsen. Ez eban barbarik egin. Ez eban aurkitu Barri Ona azaltzeko biderik. Siñuz eskatuta janari batzuk erosi ebazan eta gero an igaro eban egun osoa batetik bestera.

Euskaldunen izkuntza, aspaldion etxean entzuna, zerbait ulertzen eban, baiña ez berba egiteko beste eta indoeuropearrai ez eutsen ezertxu be ulertzen.

Eguerdi-inguruan Berriaga mendi muñoaren erpinera joan zan eta antxe egin eban bazkari-legea. Andik ikusi eban gaur Mungialdea dan inguru ederra: Ezkerraldean, gaurko izenakaz esanda, Santa Marina txuntxurra, eskumarago Iru txuntxur garbi dauzan Jata-mendia eta aurrera jarraituz Sollube zapala ta Bizkaigana deritxon erpin polita. Baiña bere begiak mendi orrein barruan dagozan etxeetara begiratzen eben, areik ziran, izan be, berak Barri ona agertu bear eutsen eta Alkarteetan batu bear ebazan kristiñau-gaiak.

Begien aurrean gaur Mungialdea dan aran ederra eukala, pentsaldi sakonak izan ebazan Milian errukarriak: Nondik asi? Izkuntza jakin barik zelan alkar ulertu? Bakarka bizi zan jentea zelan alkartu? Dana dala, egun baten ez zan egin bear lana, etorrera bat be ez zan izango naikoa, epe luzeagoa bearko zan. Eta Jesus bera izango eban laguntzaille.

Gauza batek poztuten eban Milian: Emen Berriagan etxe-moltzo aundia dago eta zarata larregi entzuten da, baiña ikusten diran etxeak bakar-etxeak dira, naizta sarritan alkarregandik ain urrin ez egon, eta bakarka berba egitea, edo siñuakaz alkar ulertzea, errezagoa izango zan... Eta, azken baten, euskadunen izkuntza ikasi bear eban, eurakaz nasai eta bero berba egiteko, eurai Barri Ona azaltzeko, euren erlejiñoa zein zan jakiteko eta alkarteak sortzeko. Izan be kristiñau izatea alkarteko bizitza da, eta au lortzea errezago litzake Berriaga'n, etxe alkartuak ziralako.

Urrengo egunetan be an etxe-artean agertu zan eta bera an ikustea izan zan lenengo testigantza. Guztiak esaten eben: Nor dogu ain maitagarri agertzen dan gizon baragarri ori? Zer nai dau? Zertarako etorri da? Eta siñuak egiten eutsoezan, alkar ulertzea eziña izan arren.

Lenengo azia ereinda egoan: Nor dogu au? Zertarako etorri da au?

Berak iñoz kurutzea ateratzeko zirikaldia izaten eban, baiña ezin. Ori ikusita, berbarik ezin egin danean, zer esango eben areik. Gorde egin bear gaurkoz? Pater Noster abesteko gogoa etorkion, baiña zertarako? Ez eben ezer ulertuko!

Amabost bat egun egin ebazan an Milian'ek eta, etorri zan lez, usterik gitxien zanean desagertu zan.

Bizintxo ta Laurentzio aurkitu ebazan Larrabetzu'n eta besarkada bero betegaz alkar agurtu eben. Gero Zeanuri'ra joan ziran eta an egoan eurai itxaroten Braulio. Alkar agurtzea pozez eta arduraz beterik joian besarkadea zan.

Euren zaldietan bizkor igon ziran Baratzar-gaiñera eta andik bizkorrago jarraitu eben Akosta'ra eltzeko pozagaz.

Akosta'n zain egozan anaiak eta pozezko abestiak abestu ebezan,Laudes Hinkmari deritxona artuta: Tanpora bona habeatis... Multos annos... Amen.

•••

Atal arduratu au amaitu baiño len oar bi egin nai dodaz: Jazokizun oneik zein urteren inguruan jarri bear diran da lenengoa eta Milian'en izkuntza bigarrena.

Zein urte inguruan jarri geinke Akosta'ko Lekaide-etxearen aunditasun aundi au?

Ba, jakingarri oneik artzen dodaz kontuan: 400n.urtekoa da Morga'ko Gerekiz-gaiñean agertu zan arri-idatzia. "Te. Esemproniae conjugi suae posuet memorian". "Memoriam" berba au kristiñauena dala kontuan arturik, illobi ori kristiñaua zan. Orduan, 300n.inguruan eldu zan fedea Euskalerrira.

Beste alde batetik, lekaideen eragiña oso antxiñakoa da Eleizan eta 260n.urtean Dionisio izeneko lekaide bat Aita Santua zan. Ipiñi daiguzan 40 urte geiago eta izan leitekena da Akosta'n Lekaidetzea izatea.

Eta bigarren arazoa Milian'en izkuntza da. Akosta'n eta arago urte orreitan euskera egiten zan, zergaitik ez ekian euskeraz Milian'ek?

Erantzuna emoteko Milian'en bizitzako gauza batzuk jakin bear doguz: Milian gaur Donemiliane deritxon lekaide-etxetik etorri zan Akosta'ra eta bera zan Donemiliane'ren iraslea. Orrek esan nai dau ara be aragotik etorria zala. Nondik? Zaragoza-aldetik edo! Dana dala, Akosta'ra etorri zanean ez ekian euskerarik. Ikasi egin bear eban, baiña bere buruan nagusikeri bat eukan orduan eta bere izkuntza, latiña, zan baliokoa, ez besteak.

Berriaga ta inguruetako auzoetara Barri Ona eskuan ebala etorri zanean, ondo damutu jakon euskerea ez ikasi izatea! Zelako samintasunak eta ezintasunak! Eta azkenan ikasi egin bear.

Ez zan gauza gaitxa beretzat izkuntza ori ikastea. Bere lekaide lagun guztiak, geienak beintzat, euskaldunak ziran eta Milian'ek eurakaz alkar-izketan ez eban geiago erderarik egin. Bai eleizkizunetan, oiturea zalako eta liburrurik euskeraz ez egoalako, baiña eleizkizunetatik kanpora ez jakon berbatxu bat entzun, euskeraz ez zanik.

**OTOITZ-ALDIA AKOSTA’N: BIALTZEA**
**ACTO ORACIONAL EN AKOSTA: El envío**
**(LAUDES HINKMARI’tik artua)**

**NORTZUK:** Aurrean Artximandrita ta lau abat
Erdian lau Euskalerrira bialtzekoak: Milian
Braulio
Bizintxo
Laurentzio

Eleizan: 160 lekaide.

**– Artximandrita’ren berbaldia: Jainkoari eskerrak Bizkai’ra Jaungoikoaren berbea daroazuelako**

**– Asierea: CHRISTUS VINCIT, CHRISTUS REGNAT, CHRISTUS IMPERAT**

**– ESKUAK EZARTEN / DAUTSEZ ARTXIMANDRITAK ETA LAU ABATAK, ABESTUZ (DOIÑUA GORATUZ):**

**ABATAK:** Tempora bona habeatis! **GUZTIAK:** Multos annos!
Tempora bona habeatis! Multos annos!
Tempora bona habeatis! Multos annos!

FELICITER! FELICITER! FELICITER!

– Euren izeneko deunai eskaria:

Sancte Emiliane! Tu illum adjuva!
Sancte Brauli! Tu illum adjuva!
Sancte Vincenti! Tu illum adjuva!
Sancte Laurenti! Tu illum adjuva!

**– AMAIA: CHRISTUS VINCIT, CHRISTUS REGNAT, CHRISTUS IMPERAT:**

**LUZE ABESTUTA:** Ite, Missa est
Zoaze, bialtzea da.
**CANTO LARGO:** ID, ES EL ENVIO

DEO GRATIAS
ESKERRAK JAINKOARI
A DIOS GRACIAS

## Llegada de Milian a Berriaga

**Acosta es un pueblo sencillo, venido a menos, del alegre valle de Zigoitia, que forma un ayuntamiento que limita con Bizkaia en Ubidea.**

**Había allí un monasterio, o más bien cenobio, al pie de la montaña. Quedan algunos restos. Tenía una hermosa iglesia, junto a ésta un amplio comedor y en las inmediaciones abadías de monjes entre los que había panaderos, zapateros, tejedores, pastores, sobre todo agricultores y una caballeriza.**

**Se veían en las inmediaciones grupos de monjes trabajadores que volvían de sus abadías: unos traían peces, otros fresas, otros ajos, otros venían del molino con harina... Nada faltaba... Quedaba algo para la venta.**

**Era un día bien despejado de verano y vimos cómo se acercaban cuatro monjes a la caballeriza y preparaban cada uno su caballo para algún viaje. Salieron rápidamente del cenobio. Eran Braulio, Bizintxo, Laurentzio y Milian. Los cuatro se habían comprometido ante el Abad y ante el Archimandrita a realizar una labor amplia misionera en la zona hacia el mar, que era aún totalmente pagana.**

**Pasaron por la pequeña aldea de Ubidea, dentro ya de tierras que hoy llamamos Bizkaia, llegaron al alto de Barazar y, siguiendo la ruta de las calesas, bajaron a Zeanuri. Aquí se quedó Braulio, misionero para Arratia. Después de una despedida sentida pero disimulada al estilo de los monjes, los tres restantes atravesaron Arratia y por Bedia y Galdacano llegaron a Larrabetzu donde quedó el segundo misionero, Bizintxo, para evangelizar Txori-Erri. De los dos que quedaban, cada uno escogió su camino: Laurentzio siguió para Morga y Gernika y Milian subió a Gaztelumendi, siguiendo la loma hacia la ya, de oidas, conocida población celta o indoeuropea de Berriaga.**

**Fue triste para Milian la entrada a la población: unas casas pequeñas todas adosadas, sobre cimientos de piedra y entre casas una plaza más bien pequeña a la que desembocaban algunos portales pequeños.**

Era el obscurecer y, por lo poco que pudo ver, a Milian le parecieron los hombres altos y delgados, las mujeres pequeñas y, más bien, gruesas, los niños delgados y muy despiertos.

Naturalmente, no conoció a nadie y, como tampoco conocía el lenguaje, se limitió a retirarse a descansar hasta el gran amanecer de aquella población. Iba a sonar por vez primera el Evangelio de Jesús. Hasta el amanecer, como digo, se acurrucó junto a una pared y cubierto como pudo con lo poco que traía, se durmió plácidamente junto a unas viejas ruinas.

Por fin llegó el gran amanecer del Evangelio para Berriaga.

Con la primera luz solar salieron a la plaza los primeros vendedores de viandas y verduras. Era día de mercado: Milian se sintió como encogido: No conocía a nadie, no entendía a nadie, no veía por donde comenzar su labor.

Se acercó al mercado, como cualquier comprador. Logró distinguir por el lenguaje a los vascos de cuya lengua algo sabía y a los celtas o indoeuropeos a quienes no entendía ni una palabra. No dijo nada. No le pareció el momento, no había llegado la hora de evangelizar. Compró algunas cosillas por señas y por conectar algo y pasó aquel día andando de un lado a otro, siempre como ido.

Hacia el mediodía llegó a la cumbre de la colina e hizo algo así como una comida y contempló todo el mungialde de hoy: desde la hoy llamada colina de santa Marina, pasó a mirar a la bellísima montaña de tres puntas, Jata; luego el Sollube, Bizkaigana... Pero se fijaba especialmente en las hermosas casas de campo que contrastaban con la pequeñez de Berriaga. Ellas eran su objetivo a evangelizar en próximo futuro. Por lo menos por allí encontraría el silencio perdido en Berriaga.

Pasó algunos días entre aquellas casas más bien pobres pero que prometían una fácil reunión en grupos.

El conoció un poco al poblado pero era más importante que le vieran a él tan sonriente a pesar de las dificultades. Todos empezaron a preguntarse: ¿Qué o quién será este hombre que parece tan bondadoso? ¿A qué habrá venido? Esa fue la primera semilla silenciosa metida bajo tierra húmeda.

**Milian se decía: –No puedo hablar porque no me entienden, pero puedo cantar, puedo mostrarles un crucifijo! Pero nada entenderían, de nada serviría.**

**Así como vino, se ausentó silenciosamente. Habían pasado quince días, al parecer perdidos.**

**Se encontró con Bizintxo y Laurentzio en Larrabetzu. Se abrazaron emocionados. Luego llegaron a Zeanuri donde les esperaba Braulio. Pocos éxitos se pudieron contar. Montaron rápidamente y se dirigieron a Acosta donde se les esperaba entre cantos como los de Hinkmari: "Tempora bona habeatis... Multos annos. Amen.**

**Todos estos sucesos podemos colocarlos hacia el año 300.**

**Por otra parte. Milian se dio cuenta de la gran equivocación suya por no haber cultivado el euskera que era lengua común de sus compañeros. El nunca despreció esta lengua. Pensó siempre que el latín bastaba para todo el mundo, pero el mundo le resultó más grande del que pensaba. También existían los vascos que no sabían latín.**

# 7.– LENENGO EUSKALDUN FEDEDUNAK BERRIAGA'N

Milian eta beronen lagun aundi ziran Braulio, Bizintxo ta Laurentzio sarritan joaten ziran bakoitxa bere misiñoi-arlora eta benetako maitasuna artu eutsen erritarrai. Eta erritarrak be bai eurai.

Gure Milian be, bide luzeak nekatuta etorri arren, pozik eta berretxua espanetan ebala agertzen zan Berriaga erri aundian. Erria bera be biotz-zabal biurtu jakon eta alde guztietan barretxuagaz agurtzen eben.

Milian'ek Akosta'ko bere lagunakaz euskera asko ikasi eban, naizta oraindiño ezin nasai-nasai Barri Ona azaldu.

Maitetasun bereizia agertzen eutson Birla izena eukan euskaldun batek, eta berak be barretxu egokia egiten eutson eta alkar agurtzen ebenean, era bereiziz estutzen eben eskua.

Egun baten Milian'ek Birla'ri berba oneik esa eutsozan:

– Birla adiskide!: Nik emengo biztanleakaz berba egin gura dot, baiña euskerea ez dot oraindiño eskuratu. Izango zara nire itzultzaille euren aurrean?

– Bai, Milian, pozik beteko dot zeregin ori. Noiz asiko gara.

– Gaur berton! Ez da zertan luzatu. Azoka amaitzen danean, jo egizu txalaparta eta batu danak eta esan: Milian'ek zerbait esan gura dautzue:

Eta orrelantxe egin zan. Egun aretako azoka-artu-emonak amaituantzean egozanean, Birlak jo eban txalaparta eta laster batu ziran guztiak, euren aurpegietan jakimin aundia agiri zala.

Milian'ek, Birla'k itzulpena egiten ebala, esan eban: Ni gu baiño goragokoa da norbaiten adiskidea naz eta zuek zer gurtzen dozuen jakin nai dot.

Entzuleen artean zurrumurrua sortu zan. Egia esan euren bizitzan gai onek ez eukan garrantzi aundirik. Baiña entzun ziran banakako erantzunak:

– Ortzi-esan eban batek.

– Lizarra eta ereñotza- esan eban beste batek.

– Ibai aundiak- esan eban irugarren batek.

– Itxaso zabala-aldarrikatu eban azkenengoak.

– Eta gurtzen dozuezan orrei maitasuna dautsezue ala bildurra?

– Bildurra sarritan esan eban batek, baiña maitasunik ez. Geure artean be maitasuna gauza urria da. Alkarren gorrotoa dago sarriago, edo bekaitza. Gaiñera Ortzi'k Mari bitarteko dala, ekaitzak bialtzen dauz. Itxasora urreratu be ez gara egiten. Mari eta sorgiñak dira gure gaisoak, begizkoarena batez, ekarten dabezanak. Osasuna eskatzen dautsegu eta sorgin batzuk bigizkoarena eta zan-tirituarena osatzen onak dira.

– Entzun egistazue- esan eban Birla'ren agoz eta onek txalaparta barriro joten ebala: Nik neurea esango dautzuet, biotz onez eta pozik, zuena ontzat emonda gero: Mari'ren eta ekaitz guztien gaiñetik, gaisoak osatu eta osasuna ta dana emoten dauan Inko dago, guk Jainko esaten dautsaguna. Inko edo ortziko dau izena, baiña goragokoa da, gauza guztien egillea. Inko'k maite gaitu eta gutzat bideko lagun izateko Kismi bialdu dausku. Kismi au Inko'ren seme ona da eta gure artera etorri zan. Baiña gutarrak, okerrak ziralako, eriotza gogorra emon eutsoen Kismi'ri, baiña Inko Aitak bizi barria, betikoa emon eutson. Kismi'k maite gaitu, Inko'k be bai. Beti dagoz guri laguntzeko eta eriotzeak garoazenean guri be Jaun Inko Aita onak betiko bizia, iñoz amaituko ez dana, emongo dausku.

Milian'en berbaldi au sakonegia ta luzeegia zan entzule areintzat, baiña Milian'ek bein eta barriro egunen joanean eta urteetan gauza berdiñak esaten ebazan, beti barretxuagaz, beti biotz beroagaz.

Egun pozgarri baten, Milian'eri Birla'k auxe esan eutson:

– Milian! Gizon eta emakume batzuk dagoz or zugaz berba egiteko!

– Zer nai ete dabe nire seme-alaba maiteok?

– Ba, Kismi'ri jarraitzeko gertu dagoz, antza, eta zer egin bear daben jakin gura dabe.

Milian'en begiak zerurantza jaso eta esan eutsan Jainkoari:

– "Orain itzi dagikieozu Jauna, zure morroi oneri bakean zugana joaten. Ikusi dabe nire begiak zure salbamena, erri guztien aurrean ipiñi dozuna, atzerriak argitzeko argia".

Milian'ek katekumeno oneik gertatu ebazan kristiñau-gertakutza edo katekumenadu luze ta pozgarri baten: Zer pozik berba egiten eban Milian'ek eta zelako pozagaz entzun berari Berriaga'tarrak!

Gertakuntza luze ori asi zanean, egun baten, isilpeko sakon bat agertu eutsoen katekumenoak:

– Milian! Or Berriaga mendi onen erpinean sorgiñaren etxea dago. Berak berba egiten dautso Mari'ri gure alde eta berak osatzen dauz gure begizkoarenak eta santirituak, berak egiten dau araoa edo konjuroa ekaitza datorrenean.

– Arritu egin zan Milian isilpeko aundi ori ezagutzen ez ebalako, baiña bere artean esan eban:

– Sorgin au ez da izango andra txarra. Beragana joango naz.

Egun baten joan ziran Milian eta Birla sorgin-etxera eta alkar-izketa luzea izan eben. Azkenean kerigma osoa azaldu eutson Milian'ek eta ur bedeinkatuaren indarra be agertu eutson. Sorginak bere zalantzak eukazan, negar be egin eban, eta gogo biziz eskatu eutson Milian'eri bera katekumenoen artean artzeko.

Bein baten Milian'ek bere jarraitzailleei esan eutsen:

– Ara! Kristiñauen oiturea da, gutariko bat ilten danean Jaun Inko'ren esku iztea eta orretarako gorpuaren gaiñean eskaria egiten dogu bere alde eta gero gorpua antxe bertan, otoitza egin dan lekuan bertan, lurpe-



***Argi Foto Mungia.***

Birla'ren illobiak Mungia'ko eleizan / Sepulcros de Villela. Olako iru dagoz / Hay tres semejantes. Erromaniko zarra dira (IX Gizaldia).

ratzen da. Orlelan biziak eta illak leku baten batzen gara Inko aitaren aurrean. Nik auxe esondatzen dautsuet: Berriaga'n gure batzarrak egiteko tokirik be ez daukagu. Egizue ba guztiok sartzeko bestekoa izango dan tokitxu bat, orreri batzarra, eleizea, esango dautsagu. Etxe orren alboan bizileku txiki bat egizue, berari deutsola, eta or biziko da eleizkizunen ardurea artzen dauana eta otoitzak egingo dauzana. Eta beste gauzatxu bat eskintzen dautzuet: sorgiña izan dan emakume onek aurreratzean Serore izango dau izena eta bera izango da illen gaiñean, gaisoen gaiñean eta danean otoitza egingo dauana. Guztion artean ildakoen gorpuak lurpean sartuko dozuez eleizan bertan otoitza egin eta gero.

Egundoko poza artu eben guztiak eta ez gitxien Serore edo arreba izen barria ezarri jakon sorgiña izanak.

## Primeros cristianos de Mungialde en Berriaga

**Los cuatro enviados viajaban con frecuencia de Acosta a Bizkaia cada uno a su zona. Tomaron verdadero cariño a Bizkaia.**

**Milian se presenta siempre muy sonriente en Berriaga y los habitantes de esta ciudad le recibieron con la misma sonrisa.**

**El euskera de Milian había progresado mucho, pero aún tenía dificultad para comunicarse con la soltura necesaria.**

**Le manifestaba especial cariño un euskaldun llamado Villela y, de entrada, Milian le respondía con la misma simpatía. Un día memorable Milian le dijo:**

**– Villela, permíteme un ruego: ¿Puedes hacer de intérprete en mis comunicaciones a la gente? Tengo dificultad de comunicación todavía.**

**– ¿Cómo no? ¡Milian! ¿Cuándo comenzamos?**

**– ¡Hoy mismo!**

**Milian, interpretado por Villela, hizo esta primera comunicación:**

**– Sin duda, querréis saber quién soy y a qué vengo. Yo soy un amigo de alguien que es mucho más grande que nosotros, del señor del cielo a quien veo que llamáis Jainko o Inko Jauna. “In” llamáis al cielo en iñetazi e iñuntza. Me gustaría saber algo sobre vuestra religión: ¿Qué me decís?**

**Se oyeron respuestas más bien tímidas: Ortzi es nuestro Dios, el fresno y el laurel son nuestros árboles sagrados aunque sentimos**

un gran respeto al roble. Los rios, especialmente los más caudalosos, nos imponen respeto y el mar abierto es nuestra esperanza.

– Y ¿qué sentís por ellos, amor o respeto o miedo?

– Nada de amor, algo de respeto y mucho miedo. Miedo más bien a los intermediarios: Brujas, iretxos, Mari... Aquí el amor apenas se conoce, ni siquiera entre nosotros. Acudimos a los dioses o sus intermediarios para curar el mal de ojo, para santiritu, para conjuros...

– Escuchadme. Yo os comunico mi forma de ver esta relación: Acepto y respeto vuestras creencias ancestrales, pero os anuncio a alguien que está por encima de todo lo creado, porque es el creador de todo, siempre bondadoso con todos, fácil para el perdón. Como El es invisible para nosotros, se hizo hombre visible como nosotros en Jesus, el Kismi. A este los hombres lo recibieron mal, lo mataron, pero el Padre de todos le dio nueva vida para siempre. Esa misma esperanza tenemos nosotros.

Este discurso fue, quizá excesivamente largo y profundo. Pero Milian siguió durante muchas entrevistas desgranando esta granada, siempre alegre y sonriente. Un día Villela le dijo:

– ¡Milian! ¡Te buscan!

Ellos le dijeron:

– ¡Estamos dispuestos a ser seguidores de Kismi!

Milian manifestó una gran alegría y cantó en su interior el cántico del anciano Simeon: ahora puedes llamarme en paz... El es la luz para la revelación de las gentes.

Realizadas varias reuniones del Catecumenado, le manifestaron un secreto:

– Mira, Milian. Ahí en la cumbre vive la bruja que nos atiende.

Milian se emocionó de saber el secreto y dijo:

– Será, sin duda, una mujer de buena voluntad. Iré a verla.

Acudió un día a la casa de la bruja con la que tuvo una larga entrevista. Terminó manifestándole el kerigma y le habló de la fuerza del agua bendita. Ella tuvo sus dudas y lloró porque algo se le acababa. Al fin pidió ingreso en el catecumenado.

En una de las reuniones de catecúmenos habló de nuestra futura muerte y consiguiente resurrección y de la forma de enterrar los restos de los cristianos e hizo la propuesta de un edificio sen-

cillo para reuniones y para enterramientos en su tierra. Encargó al que había sido bruja que tomase el cargo y el nombre de Serora. Ella se encargará de rezar en los entierros de los cristianos, como se le indicará.

Todo fue motivo de inmensa alegría para todos los catecúmenos.

Celebraron con solemnidad y alegría el Bautismo de los Catecúmenos en la solemne vigilia de la noche de Pascua.

Había nacido una comunidad cristiana, había nacido la Iglesia de Bizkaia.

## Lenengo bateoak Berriaga'n

Zein urte zan? 300ª? Zein egun zan? Pazko eguna.

Berriaga'ko eleizatxua ondo apainduta egoan eta altarearen ezkerraldean ur-ontzi aundia urez beterik. Dana egoan illun, gabeko amabiak inguruan.

Ordu orretarako eleizatxua bete zan. Laster etorri ziran Artximandrita bera, Milian, Laurentzio, Bizintxo ta Braulio. Elezpean sukarritik sua atera eta argi ederrak biztu ebezan. Orduan entzun zan Artximandritaren abots zolia, argi ederra goian ebala;

**– Kristo'ren argia!** Eta guztiak erantzun eben: **Eskerrak Jaungoikoari.** (irutan) Eta argi guztiak biztu ziran.

Aurrean Artximandrita'ren agurra benetan beroa.

Gero irakurgaiak, Milian'ek aurkezpena eginda: Mundugintza, Ejipto'ko egoerea, Itxas-Gorria, Kristo berbiztua, aleluia, Barri ona. Gero itzaldia, txarrari ukapenak eta sinismena agertzeak. Orduan banan-banan katekumenoak uretara sartu ziran eta artximandritak esaten eban bakotxaren gaiñean: Nik bateatzen zaitut... Eta uretatik urtekeran guztiak zuriz jantzi ziran geroko bizitza garbia adierazteko.

Gero Euskaristia ospatu eben eta garrantzi aundia emon eutsen ogia zatitzeari eta banatzeari alkar maitasunaren ezaugarri zalako.

Ezin agertu kristiñau barriak, neofitoak,biotzean euken poza!

Sollube-mendiaren albotik eguzki gorria etorren, kristiñau barriak bizitza barria asi eben, Kristo berbiztuagaz batera biziko dira argiaren seme-alaba lez. Guztiak ziran bialduak euren sinismena inguruan eta mundu guztira zabaltzeko. Ori esan eban Antximandrinaren lagun lez Milian'ek abestu eban "Ite Missa est" luze-luzean.

**Zoaze Jaunaren bakean**

# 8.– MUNGIA'KO BIRLE'RA BARRI ONA

Nor ete zan an Berriaga'n Milian'en lenengo lagun eta itzultzaille izan zan Birla edo Billela?

Birla edo Billela ez zan jatorriz euskalduna, Arebako'tarren artetik etorria zan eta oraindiño an Palentzia'n dago erritxu bat izen ori daukana. Urteak eroiazan emen eta andik ekarri eban jautxuen usaiña emen aundiago biurtu jakon. Oraindiño ez zan aundi-aundia, baiña bai jauntxuen artean zarrenetarikoa.

Birla'k egun baten esan eutson Milian'eri:

– Abadea! Betor gure etxera ta lurraldera. An ondo artuko dogu!

– Nire egitekoa Barri Ona zabaltzea da eta zu lagun zaitudala an zuen inguruan be zabalduko dogu Jesus'en Barria.

Esan eta egin! Urten eben biak ain maite eben Berriaga'tik eta abiatu ziran Birle-rantza: Bide zidorrak beti, albo bietan aritz aundi ikaragarriak sarritan, landa orlegi-artean noizbeinka, batzutan aldapa txikiak, beste batzutan zelai-zelaiak... Eldu ziran azkenengo aldapatxua igarota, Birle gaiñera. Inguru osoa zan Birla'ren emporiun edo barruti eder bat. Ba eukazan jopuak serbitzeko, mirabeak etxeko garbiketak egiteko, gudariak bear diranetako, errotea, torre-etxea eta zer ez?

Milian goibeldu egin zan eta bere artean iñoan:

– Olako giroa aurkitzekotan ez nintzan sekula etorriko. Askoz obeto bakarrik etorri eta erritar zeiai Barri Ona iragarri... Dana dala, asi gara eta goazen aurrera.

An alboan ikusten zan erromatarren bide bat, Birla'ri agur egin eta itxasorantza joaten ziran ainbeste Erroma'tarrena.

Birla'k oso ondo artu eban Milian, bere torre-etxe ederrean, oiñak garbitzeko naiz edozein laguntza emoteko mirabe euskaldunak ebazala.

Baiña Milian'ek bere artean:

– Ze ondo egoten nintzan Berriaga'ko orma-bazterrean neure estalkien azpian! Zori txarrez olan laguntza emoten dabenak, ondo dakit, gero askoz geiago eskatzen dabe.

Egun batzuk igaro ziranean, Milian'ek ikustaldi bat izan eban. Lenengo Berriaga'ra etorri eta gero, an galdetu, emen itaundu, aurkitu eben Milian Torre-etxean eta esandako giroan. Bekoki illuna ipiñi eutsoen berau ikertzera etorri ziran Braulio, Laurentzio ta Bizintxo'k eta esan eutsoen:

– Zer da au, Milian! Zer jaso jatzu? Ez ete zara lekaidea onezkero?

Negarrez agertu eban Milian isillak, zelan eldu zan egoera onetara eta zelako semintasuna eukan Birla bere lagunak gauzak argi esan ez eutsozalako.

Alkar-izketa luzea izan eben eta azkenean, ordukoz, egoerea onartzea erabagi eben, baiña Birla'ren arrapagaillu edo sara-arte aretatik ainbat lasterren urtetekotan.

Milian'en eta Birla'ren arteko artu-emonak be aldatu egin ziran. Milian'ek beti esaten eutson:

– Au ez da Barri Ona'ren mundua. Zu kristiñaua zara eta lenengo biurtu-bearra zeuk daukazu: Ez dago ondo olako jopu edo morroiak eukitea, ez dago ondo ainbeste mirabe zeu zaintzeko eukitea eta agertzen dozun gudarako griña ori eta gudariak eukitea ez da ezelan be alkartzen gure fedeagaz. Au ez da Barri Ona'ren mundua.

Olako gauzak bein eta barriro esan arren, adiskide jarraitu eben ordukoz.

Egin eben lau misiolariak Akosta'ko Lakaidetxean be batzarra eta agertu eben arazoa. Milian'ek esaten eutsen:

– Torre baten bizi dan eta mirabeak, morroiak eta gudariak daukazan gizon arroskoa, ez da bear dogun eredua. Menperatzaillea da Birla eta jokabide txarra da ori Barri Ona zabaltzeko. Txarrena bear ba'da. Birla'ren menpekoak errezegi egingo dira kristiñau euren jabeak agindu-ta, baiña ez, ori ez da bidea. Parkatu egistazue okerreko oinkada au emona. Orain zer egingo dogu? Egoera onartu eta zuzendu ala dana apurtu?

Lekaide zer eta zur batek aolku au emon eutsen:

– Mundu osoa dago gaiztoaren eskuetan, Paulo'k diñoan lez, eta Barri Onaren bidez esku orreitatik atera bear dogu. Baiña zelan atera

mundua dagon lekura sartu barik? Ortxe dago gure ekintza, mundura sartu eta gaizkatu, "eurenagaz sartu eta geureagaz urten".

Urrengo Birle'ra joan zanean, apaltasun-bidea artu eban Milian'ek eta Torre-Etxean bizi izan arren, tokirik apalenera iges egiten eban, zaldien artera be bai, sarritan laztategira.

Asi zan inguru'ko bost-edo etxeetara joaten eta pozik egiten eban berba eurakaz:

– Ni Inko'ren laguna naz, zein da zuen Jainkoa...?

Gitxi gorabera, Berriaga'ko alkar-izketearen antzekoa izaten zan eta urteak egin ebazan eurakaz berbetan. Gero batzarrak egiten asi zan eta laster jakin eban nor zan Birle-gaiñean bizi zan sorgiña, Birla'ren lagun aundia baiña eurentzat beti agertzen ebazan aurpegi illuna eta eskari aundiak, diruz naiz solo-ariz. Errez konturatu zan geienak Birla'ri ta bere serbitzailleari gorrotoa eutsela. Euren begizkoana edo zantiritua osatzea karu ordaindu bear izaten eben eta arao edo konjuroa egiten ebanean edo soloen alde Mari'ri berba egiten eutsonean, soloarien zati onak emon bear izaten ebezan.

Milian'ek biotz onez eta isilpean eukitekotan artzen ebazan barri mingarri oneik. Bai eurak eta bai Milian'ek alkarrari aurpegi oso ona ta irribarretsua agertzen eutsen. Guztiak egozan pozik.

Birla iñoz joaten zan batzarretara, baiña ez eukan asti larregirik, Milian'en zorionerako. Birla ez egoan baten azaldu eutsen asmo eder bat: Eleizatxu bat egin Kristiñau diranak euren gorpuak antxe lurperatzeko eta eleiza ori zaintzeko. Ordukoz, Akosta'ko eremutar gazte bat ekarriko eban bertan ermitaño izateko. Pozik artu eben guztiak barri ori.

Ogeita amar bat ziran batzarretan urte pare bat egin eben katekumenoak eta elduta egozan Bateoa artzeko: Pentekoste egunean izan zan ospakizuna eta guztiak artu eben Jaunaren Espiritua.

Egun ori eldu baiño lenago, Birle-gaiñeko sorgiñak bere egunak amaitu ebazan eta eriotza larria izan eban. Beste alde batetik, Birla jauna ez zan larregi sartzen Milian'en gauzetara eta ospakizuna egin zanetik poz berezi bat ikusten zan auzo aretan.

Orrelan geratu zan sendo Birle'ko eleizea, ermitañoaren ardurapean: oneri Milian'ek Birleko ipiñi eutson izena.

•••

Birle'n jazokizun pozgarriok jazoten ziran aldian Berriaga'n aldakuntza aundiak egon ziran» Erromatarrak urreratu ziran ara eta



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Birle'ko kurutze deuna (Villela-Mungia).

Indoeuropearrak guztiak iges egin bear izan ebe. Berriaga euskaldunen eskuan geratu zan, baiña jabe bat agertu zan euren gaiñetik: Nor eta Birla bera eleizearen eta erriaren jabe lez. Jauntxu oneik beti jauntxu!

Gaiñera, inguruan bere izena zabaltzeko eta jentea batzeko beste maltzurkeri bat asmatu eban Birla'k. Arri aundi bat artu eben eta

antxe irarteko agindu eban: “Belila, Jesukristo’ren Mirabea” (Belilla serva Jesukristi Anno 70).

Antxe egon da arri ori oraintsura arte eta antxe ikusi eban Henao edeslariak, eta beste askok. Gaur ez da iñon agiri, baiña argi dago eziña dala 70n.urtean (gitxi gorabera, an agertzen dan urteak erak diralako). Geienak diñoe Billela’tarren mamultza izan leitekela arri aundi ori.

Milian’en aldian an ipiñia izan arri au eta onek esaten eban: Birla beti bardin! Jauntxuak ez dauke osabiderik!

Dana-dala, bateatu-barrien eleiz-alkarte bi oneik Milian’en biotza zorionez beteten eben. Oneik ziran bere poza ta koroia.



***Argi Foto: Mungia***

Torre Villela. Aurretik Birle’n egoan. 1200n. urte inguruan egin zan Mungia’koa Sarritan barriztau da eta ez ondo. Argazkia atzeko aldetik artua. Puntu-erdiko arkuak ete dira lenengoak?

## Primeros bautizos en Berriaga

No podemos fijar año ni día, pero sí que fue una noche de Vigilia Pascual.

La pequeña y recién construida ermita de San Bartolomé de Berriaga estaba muy adornada y repleta de interesados y curiosos. A la izquierda del altar se veía un gran recipiente de agua casi totalmente lleno. Hacia la media noche era todo oscuridad.

A esa hora llegó el Archimandrita con Milian, Braulio, Laurentzio y Bizintxo. Tampoco faltó a la cita Birleko. A la entrada se sacó fuego del pedernal y se bendijo el fuego y de éste se encendieron los cirios y las velas, mientras el archimandrita con voz profunda exclamó:

– Lumen Christi!

Y todos al unísono respondieron:

– Deo gratias!

Asi tres veces hasta que el pequeño templo quedó lleno de luces.

Leyó Milian el pregón con la felicitación de pascuas al mundo, a la madre Iglesia, al Papa y a todos.

Luego se procedió a las lecturas comentadas por Milian en las que se recordó la creación, la salida de Egipto, el paso del Mar Rojo. A cada lectura seguía el salmo y la oración del Archimandrita adecuados. Se cantó muy solemne el aleluia entonado por el que presidía y siguieron las lecturas que anunciaban, la resurrección del Señor. Después de la homilía siguió la renuncia al mal y la solmne profesión de fe. Acto seguido los catecúmenos, uno a uno entraron al agua y oyeron la fórmula del bautismo: Yo te bautizo... Y al salir los neófitos todos se vestían de blanco para simbolizar una vida limpia de todo pecado.

Siguió la Eucaristía en la que gozosamente compartieron el Pan Eucarístico, símbolo del amor mutuo y la unidad.

Era ya la madrugada y allá a la izquierda del monte Sollube subía el disco dorado del sol. Empezó la vida nueva de los neófitos que recibieron los abrazos de todos. Por algo fueron enviados por el archimandrita en cuyo nombre Milian cantó con melismas bien largos:

– Ite, Missa est aleluia, aleluia!

– Deo gratias, aleluia, aleluia!



*Argi Foto: Mungia.*

Birla'ren ikurdia/Escudo de Villela. Parrokia-Mungia: Kurutzea eta bost otso. Zortzi urrezko giltz. Lau gizon. Apaingarri bi: Abereak. Koroia.

## Evangelización en Villela de Mungia

**¿Quién vendría a ser aquel intérprete de los comienzos de Berriaga?**

**Originariamente no era vasco, había venido de entre los Arévacos. Todavía existe en Palencia un pueblecito que lleva este nombre. Y en los muchos años que llevaba aquí su familia, se le acentuó su carácter de cacique.**

**Villela le dijo un día a Milian:**

**– Milian, ven a nuestra casa y a nuestra tierra a evangelizar.**

**Gustó la propuesta a Milian y la realizó inmediatamente.**

**Ambos salieron juntos de Berriaga en sus caballos, recorrieron valles y colinas por sendas tortuosas, atravesando grandes**

robledales y pequeños pastizales y, después de subir un último repechito, llegaron a Villela. Todo el contorno era propiedad de la familia y tenía esclavos para el campo, esclavas para casa, muchos soldados, un molino, una Casta-Torre y muchas cosas más.

Milian se sintió muy triste ante todo aquello y se dijo:

– De haber sabido que éste era el ambiente en que vivía Villela, nunca hubiera venido. Es mejor venir solo y a pie y contactar con el pueblo sencillo, pero a lo hecho pecho, sigamos adelante.

Cerca se veía una vía romana por la que pasaban muchos conocidos y hasta amigos de Villela que iban hacia el mar.

Villela recibió a Milian con toda clase de atenciones en su hermosa Casa Torre. Las esclavas lavaban sus pies y estaban dispuestas a cualquier servicio.

Milian se dijo:

– ¡Cuánto mejor mi llegada a Berriaga cuando tuve que dormir acostado junto a aquel viejo muro de la ciudad!

Pasados unos días, Milian recibió una visita inesperada: Después de tanto preguntar y caminar, al fin le habían econtrado sus tres compañeros misioneros. En cuanto vieron el ambiente en que vivía Milian le pusieron cara muy seria y le dijeron:

– ¿Qué es esto, Milian? ¿Qué te ha pasado? ¿Acaso has abandonado el monasterio?

Milian, siempre silencioso, respondió con lágrimas en los ojos.

Después de largo diálogo de hermanos, decidieron aceptar la situación pero con la condición de salir cuanto antes de aquella red tendida por Villela.

También cambiaron las relaciones con Villela. Un día Milian le dijo:

– Este ambiente no es adecuado para evangelizar. Todavía tu mismo estás necesitado de conversión. No es nada cristiana esta esclavitud que practicas y menos aún este ambiente de guerreros. No es este un mundo a evangelizar.

•••

Los cuatro misioneros fueron a Acosta y allí plantearon nuevamente el problema. Al fin quedó firme la propuesta de un monje

anciano: “El mundo todo está puesto en el maligno, según palabras de San Pablo, y con una labor evangelizadora, más o menos duradera, tenemos que salvarlo. ¿Cómo? Entrando con la suya y saliendo con la nuestra. Yo propongo que se acepte la situación pero tendiendo siempre a una futura liberación.

En las siguientes visitas Milian tomó otra actitud: Vivía en la Casa Torre pero buscaba los lugares más modestos de la casa para estar y dormía en el pajar.



*Argazkia / Foto: Bizkaiko Foru Aldundia - Museo Euskal Herria*

Berriaga’ko Kastro’an dan illerrian aurkitutako illarria, kristo-aurretik I gizaldikoa.

Visitó a las casas cercanas y era muy bien recibido. Comenzaba la evangelización casi con las mismas palabras que en Berriaga: Yo soy amigo de Jaun-Inko...

Pronto le informaron de la bruja que tenía su casa en la cumbre y de que allí iban con dones y dinero con frecuencia. Pronto se dio cuenta de que no era afecto precisamente lo que sentían hacia Villela. Era el miedo pagano.

Con estas informaciones obtenidas por Milian bajo secreto, Milian atendía afectuosamente a todos y las reuniones resultaban





***Argazkia / Foto: Bizkaiko Foru Aldundia - Museo Euskal Herria***

Santiago'ren Laukariz'ko eleizan aurkitutako illobia (2002-02-04). X Gizaldikoa. Estalduta geratu da.

muy gratificantes. Algunas veces acudía también Villela que amargaba la situación.

Se reunían unas cuarenta personas. Milian les pidió, como siempre, que construyeron una ermita y que allí se sepultarían los nuevos cristianos que murieran. Les prometió que vendría un ermitaño que viviría con ellos y llevaría la presidencia de la comunidad. Se llamaría Birleko.

En la vigilia de Pentecostes se celebró el bautismo con un gozo inmenso. Pocos días antes había fallecido la bruja que servía a los intereses de Villela. Este, desde el bautismo celebrado, intervino cada vez menos en la comunidad.

Queda, pues, en firme esta nueva comunidad de Birle, para alegría de todos los monjes, especialmente de Milian.

•••

Durante este período hubo grandes cambios en Berriaga y su comunidad: Entraron los romanos que ahuyentaron a los indoeuropeos, Berriaga quedó en manos de vascos que pactaron con los romanos y quedó el Señor de Villela como dueño de la situación.

Villela tuvo una idea nefasta para dar fama a Berriaga. Labró una piedra dedicada a “Velilla, sierva de Jesús el Cristo. Año 70”. Esta piedra existió hasta hace poco y da testimonio de ello entre otros el P. Henao, historiador, pero hoy no existe. Casi todos reconocen que se trata de una intervención de la arrogancia de la familia Villela.

Todo ello ocurrió en tiempos de Milian que cada vez se distanciaba más de Villela.

Estas dos comunidades que seguían su vida, eran la alegría de Milian.

## Alkar-izketa latza
## (Milian eta Birla edo Villela jauna)

**Milian'ek:** Egunon, Birla Jauna! Itzi egidazu gaur neure barruko kezkak agertzen!

**Birla'k:** Bai, azpaldion zakust kezkati ta mingots. Ez ete naz ni kristiñau ona?

**Milian'ek:** Ez, Birla! Guda-zalea zara! Gizonak eta andereak jopu lez artzen dozuz! Aberastasun larregi batu dozu! Besteak menpean artzen dozuz! Kristiñauen alkartea bera be zeure menpeko lez eta zeure onerako artzen dozu! Eta Kristo'k bardintasuna, txirotasuna ta bakea eskatzen dautzuz!

**Birla'k:** Bai, Milian! Ori ikasi gendun gure gertakuntzan, baiña ori ametsezko mundua da. Emen mundu onetan gudak dagoz, erasoteko eta geu zaintzeko, eta Inko jauna berak ipiñi gaitu batzuk goian eta beste batzuk bean.

**Milian'ek:** Ez, Birla, ez! Milla bidar ez! Gaiñera zuk alkartea bera be menperatu egiten dozu eta daukazan ondasun apurrak be kendu!

**Birla'k:** Nik neure bizi-maila daukat eta zaindu egin bear dot: Goikoak goian eta bekoak beean!

**Milian'ek:** Ez iñoz menperatu Jainkoaren alkartea, Birla! Mesedez! Ez kendu daukazan eta bear dauzan ondasu-apurrak! Ez ikutu Kristo'ren alkarteari. Oneri ikututen dautsana (gogoz) il egiten da.

**Birla'k:** Orduan bota egiten nozu alkartetik?

**Milian'ek:** Ez! Bota ez! Baiña fede ain makala eta oker ezia daukazun lez, alkartearen azkenengo lekuan geratzen zara. Emen aurrenengo txiroak eta gaisoak dagoz, zuk menperatzen dozuzan txiroak goratzen doguz emen!

# 9.– ZUMETXAGA'N GAURKO BAKIO TA LARRAURI

Milian'ek Berriaga'n egoan baten itxas-alderantza begiratzen eban eta beti ikusten eban lilluratuz Jata mendia: Iru txuntxur bardin areik izadian dan edertasun egokia eta Egillearen aunditasuna adierazten eutsoen.

Au izaten zan bere buruari egiten eutson itauna:

– Zer ete dago edo nortzuk ete dagoz Iru-Txuntxur arein atzekoaldean eta barrenean!

Bein baten Berriaga'tik Birle'ra joan zan, emen aukan taldea eta Birleko bere laguna ikertzeko. Pozik alkartu ziran eta alai egin eben otoitz.

Urrengo egunean esan eutson Milian'ek Birleko'ri:

– Goazen mendi iru-txuntxur orretara eta ikusi daigun zelakoa dan eta zelako itxasoa agiri dan.

Zaldiak artu eta bideratu ziran eta ikuspegi zoragarria aurkitu eben Jata mendiaren gaiñean eta eskerrak emon eutsoezan Inko Jaunari itxasoaren eta lurraren edertasunagaitik, baita andik ikusten ziran eta gizonak egiñak ziran etxe ederrakaitik.

Bai. Etxe ederrak eta ainbat agiri ziran, bai itxasorantza eta bai beste aldean, Larrabera, lur-barrurantza.

Gaua baiño lenago, mendi-barrenera, Zumetxa'ra jatzi ziran, eta gaua etorrela ikusirik Milian'ek esan eutson Birleko'ri:

– Birleko adiskide! Gaur ementxe arizpean lo egingo dogu eta biar ibillaldi bi egingo doguz, bata itxasaldean dagozan basetxe orreik ikertzera eta bestea, arratsaldean, Larraberantza lur-barruko etxe orreik ikusteko. Irugarren egunean Braulio, Laurentzio ta Bizintxo etorriko dira Berriaga'ra eta eurakaz alkartuko gara eta an gaba egin ondoren



***Mungiako udalaren Argazkia.***

Zumetxaga'ko baseleiza erromanikoa.

gure zaldi bizkorren gaiñean Akosta'ra joango gara ango gure anaiai barriak emon eta eurakaz otoitz egiñez gure barruak fedean berotzeko.

– Ederto-esan eban Birleko'k pozik nago gure Akosta maitea ikertzeko eta ango adiskideak agurtzeko. Ba-daukat bearkizuna ango giroagaz nire fede motela sendotzeko.

Gau aretan, arizpean, otoitz-aldi luzea egin eben Zumetxa'n, zaldi biak an urrean artega egozala, Gero, lo gozoa.

Goizean goiz jatsi ziran itxas-aldera eta an ainbat etxe aurkitu ebezan gaur Bakio dagon lekuan.

Milian'ek betiko ebanjalizatze bidea artu eban: lenengo alkar ezagutu ta onartu, gero euren jainkoen eta erlejiñoaren barria jakin eta gero Jesus'en barria emoten asi. Urrengoa batzarrera deia zan.

Egun beratan, arratsaldean asi eben lana Larraberan egoan etxeartean, gaur Markaida ta Larrauri diran tokietan. Bide bardiña artu eben eta urrengo batzar baten alde bietakoai esan eutsen guztiak batera

batzea zala egoakiagoa eta batzarrak Zumetxa'n izango zirala. Urteen joanean eta Milian'en guraria betez, antxe egin eben eleizatxu bat Mikel deunaren izenean, euren gorpuak ilten ziranean an illobiratzeko eta inguruan edo barruan batzarrak egiteko.

Beti lez, gertakuntza amaitu eta elduak biurtu ziranean, pazko egunez ospakizun eder baten artu eben bateoa berrogei bat lagunek.

Noizbeinka egiten ebezan batzarrak an Milian'egaz eta taldea ugarituz joian.

Egun baten euren artean berba egin eben ez ete leiteken obeto izango batzarrak itxas-aldean bat eta Larrabera'n beste egitea. Arazoa sakon aztertu zan eta batzar askoren ondoren erabagi oneik artu ebezan: Arduradun bi aukeratu, bata itxasalderako ta bestea Larrabera'rako et onein etxean egin batzarrak baiña beti Mikel Deunaren egunean eta sarritan urte-barruan Zumetxa'ko eleizatxuan alkartu. Milian nozean bein etorriko zan larrabera'ra naiz itxas-aldera eta beti, bera edo ordezko bat, Birleko bear ba'da, Zumetxa'ko Mikel deunaren eleizara.



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Merana'ko Martin Deunaren irudi oso zarra (Carolingioa) (Larrauri'n)

Orra or beste eleiz-alkarte bat, naizta apur bat nastetsuagoa, Milian'en pozerako.

## Milian'en eta Birleko'ren otoitz aldia (Jata-mendiaren erdiko txuntxurrean)

Lekaideak oso-osoan ziran eta dira Jainkoaren gizonak eta orregaitik otoitz-gizonak. Milian'ek eta Birleko'k sarritan egiten ebezan otoitz-aldiak, batez be mendi-gaiñeetan. Gaur Jata-mendiaren gaiñean daukaguz ototz egiten. Entzun dagiegun:

– Jaun Inko! Zu zara munduaren egillea, zuk egin dozuz mundua Kristo zure Semearen eta geure bizi-leku izan daiten.

– Gora zu Inko Jauna, Gora Zu Jainkoa.

– Zuk egin dozuz or beean dagozan zugazti ederrak eta barruko indarra emon dautsezu, bizia, eta bizia zabaltzeko almena.

– Gora Zu Inko Jauna, gora Zu Jainkoa.

– Zuk sortu dozuz Jauna ibaiak eta oneik zugatzen eta landen artean lurrra buztiten dabe.

– Gora Zu Inko Jauna, gora Zu Jainkoa.

– Zuk beteten dozu, Jauna, itxaso ederra urez, olatuak edertasuna emoten dautsoe itxasoari eta aitzetan apurtzen diranean zure almena agertzen dabe.

– Gora Zu Inko Jauna, gora Zu Jainkoa.

– Laiñoak sortzen dozuz an itxas-basterrean eta oneik daroe lurrera ezotasuna eta emonkortasuna.

– Gora Zu, Inko Jauna! Gora Zu Jainkoa!

– Mundu eder onetan ipiñi dozuz gizonak eta andereak bakean bizi daitezan eta zu ezagutu ta maitatu zagiezan.

– Gora Zu Inko Jauna! Gora Zu Jainkoa.

– Zuk bialdu dozu ludi eder onetara Jesus zure Seme maitea gure lagun izateko eta gu salbamenaren bidetik eroateko.

– Gora Zu Inko Jauna! Gora Zu Jainkoa!

– Zure Espirituak barriztatzen dau lur osoaren azala eta santutzen gaitu zure otseintzan.

– Gora Zu Inko Jauna, Gora Zu Jainkoa.

CHRISTUS VINCIT! CHRISTUS REGNAK! CHRISTUS IMPERAT

(Au abestuaz amaitu eben otoitza)

## Zumetxaga: acuden Bakio y Larrauri

**Milian no soñaba con otra cosa en su vida que evangelizar y su sueño se limitaba entre Berriaga y el mar.**

**Un día, mientras contemplaba el paisaje desde aquella colina, fijo su mirada en el monte Jata: ¡Qué preciosas aquellas tres puntas como diseñadas! Y todo le elevaba al Creador para bajar rápidamente hacia la gente que vivía por aquel lugar precioso.**

**Hasta que un día salió de Berriaga y se acercó a Villela donde reunido con Birleko hicieron ambos una fervorosa oración.**

**A continuación toman sus caballos mientras Milian le decía a su compañero:**

**– ¡Vamos a casas aledañas a las tres puntas del Jata!**

**Antes del anochecer llegaron al pie del Jata, al lugar llamado Zumetxa, y Milian le dijo a su amigo:**

**– ¡Amigo! Esta noche vamos a descansar bajo este roble hermoso. Mañana iremos por la mañana hacia el mar y por la tarde bajaremos por el pastizal hacia Larrabera. Pasado mañana vienen nuestros compañeros Braulio, Bizintxo y Laurentzio a Berriaga. Iremos allí y juntos todos iremos a Akosta a comunicarnos con nuestros superiores y hermanos y a orar juntos.**

**– Me parece muy bien –dijo Birleko–. Estoy contento de ir a Akosta a saludar a todos. Estoy seguro que allí se fortalecerá mi fe que aún la siento débil.**

**Cumplieron con precisión estos proyectos: Por la mañana hacia el mar para el encuentro con la gente de aquel lugar. Milian siguió el método de siempre: mutuo conocimiento sin prisas, informarse sobre su vida religiosa pagana, proponer el kerigma e invitar al catecumenado a Zumetxa.**

**Volvieron al alto y por la tarde bajaron a Larrabera y en las casas de lo que hoy se llama Larrauri procedió de la misma forma.**

**Pasado el tiempo necesario de catecumenado en Zumetxa, dicidieron construir un lugar de culto y de enterramiento, una ermita diríamos hoy, lo dedicaron a San Miguel.**

**En una vigilia pascual tuvieron la solemne y gozosa celebración del Bautismo con asistencia de varios monjes.**

**Siguió reuniéndose la comunidad que era frecuentemente visitada por Milian o por Birleko, pero como se trataba de dos lugares bastante distanciados, resolvieron escoger un responsable para la zona del mar y otro para Larrabera y se dividieron en dos comunidades, cada una en su lugar: San Martín era Patrono de ambas.**

**He ahí otros dos grupos cristianos para gozo y corona de Milian.**

## Oración en Jatamendi

Los monjes, por esencia y por tradición, son personas entregadas a la oración y a la contemplación de Dios. Así eran Birleko y Milian, sobre todo Milian.

A éste le gustaba mucho orar en las cumbres y tenía especial interés en orar en ese monte tan cercano que tres puntas, probablemente de origen volcánico.

Se puso de acuerdo con Birleko y un buen día subieron los dos a la pequeña cumbre central. Escuchemos su oración:

– Señor del cielo (Inko Jaun o Jainko). Tú eres el Creador de este bellísimo mundo. Tú lo has adecuado para morada de hombres y mujeres y, sobre todo, de Jesús, tu Hijo.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

– Tú has creado las grandes selvas y los pequeños pastizales y les das vida para que se perpetúen.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

En tí está el origen de los grandes ríos que entre árboles y pastizales caminan hacia el mar.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

Tú llenas los hermosos mares de agua y mueves las aguas dando el origen a las playas y a los espumosos acantilados.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

– Tu haces surgir las nubes en los mares para que rieguen la tierra y la fecunden para alimento de los hombres.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

– Y en este hermoso mundo has colocado a los hombres y a las mujeres para que vivan en paz, se conozcan y se amen.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

– Tú has enviado a este hermoso mundo a tu Hijo predilecto, Jesús, para que nos acompañe en el viaje y nos salve.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

– Tu Espíritu, Señor, renueva la faz de la tierra y nos santifica en tu servicio.

– ¡Bendito seas, Señor de los cielos, Jainko!

TERMINAN CANTANDO; CHRISTUS VINCIT, CHRISTUS REGNAT. CHRISTUS IMPERAT!

# 10.– FRUNIZ’KO KRISTIÑAU BARRIAK

Birla jaunagaz izan ebazan zer-ikusi guztiak ondo gogoan eukazan Milian’ek eta aurrerantzean kontu aundiaz jokatuko eban olako jauntxuen sareetara ez jausteko. Ez dau gauza erreza izango. Leku guztietan dagoz, geiago edo gitxiago, olako jauntxu zapaltzailleak, Jesus’en Barri Onaren aurka jokatzen dabenak edo Paul deunak esango leuken lez, “Kristo’ren kurutzearen arerioak”. Eta au gogoratzen dot atal onen asieran, Fruniz’en be jauntxu bat aurkituko daualako, baiña Jauntxu biurtua.

•••

Akosta’n egotaldi luzea eta onuragarria eginda, lau misiolariak: Braulio, Laurentzio, Bizintxo eta Milian, oraingo onetan Birleko zaintzaillea lagun ebela, biurtu ziran bakoitxa bere misio-lurrera, baiña Milian eta Birleko Berriaga’n geratu ziran ango fede eragiña sendotzen.

Egun baten Milian’ek Birleko bere lagunari esan eutson: – Emengo zeregiñak bete doguz eta kristiñau euskaldunak sendo geratzen dira eta biar goizean lagundu egistazu inguru batzutara lenengo ikustaldia egiten eta gero neuk lagunduko dautsut Birle’ko ateetaraiño.

Bai eta pozik noa, zugaz egun bat igaro nai neuke oraindiño gauza batzuk argitzeko, gitxienez bidean goazela.

Urrengo egunean goizetik urten eben Berriaga’tik eta mendi beraren bizkarrari jarraituz, Urrestitik aurrera, Astroka-barrenetara eldu ziran. Bidez joiazala eskuma-aldean atxak ikusi ebezan eta barrenean baserri eder bat. Ezkerretara ainbat etxe eder agiri ziran eta gero Martin deuna’ren parrokian izango zan alkartea sortu zan. Etxe onetara

urreratu ziran biak barretxua aurpegian ebela. Artu be olantxe artu ebazan baserritarrak.

– Zu –esan eutson Milian'ek bat-batean- or goian atx eder bat ikusten dot eta etxe antzeko bat be bai. Zer dago or?

– Or atxetan sorgiñak ibilten ei dira eta gabetan zaratak be entzuten dira. Agiri dan etxe antzeko ori sorgiñaren etxea da eta ara joaten gara gure gaisoak osatzeko, ekaitzak eta tximistak kalterik egin ez daiguen eta olakoetarako.

– Eta benetan sinisten dozue sorgin orreik kalteak ezarri edo kendu egin leikezela?

– Bai, bai. Sinisten dogu!

– Ba, ni emendik ibilten naiz noizean bein eta zugaz berba egin gura neuke ikusten zaitudanean. Gai orreik eta beste asko aitatuko doguz.

– Gu erdi-bakarrik bizi gara emen eta pozik egiten doguz olako alkar-izketak. Eskerrik asko.

– Beste barik gaurkoz agur adikide!

Eta irurak alkarrari eskua emonda agurtu ziran.

Ordu-erdiko bidea egin eben eta alboetan olako sorgin-leku antzekoak ikusten ebezan, esaterako Janduniz'en baiña iñogaz berbarik egin barik Botiola'ra aldu ziran ete emen bost etxe eder aurkitu ebezan: Jauregi, Lezamiz, Ormaetxe Goiri ta Azkarre. Bostak ziran banakakoak eta alkarren artean ez euken senidetasunik.

Asko poztu zan Milian etxe eder areik ikusita eta batera ta bestera ibilli ondoren bostak alkartzea eskatu eban. Etorri be egin ziran.

Ez eban gauza aundirik esan Milian'ek baiña bai biotz berotasuna agertu eta giro ona sortu. Biak joan ziranean Botiola'tarrak alkarrari esaten eutsoen:

– Nortzuk ete dira oneik eta zer nai ete dabe? Zergaitik urrengoan be etorteko eta alkartzeko olako gogoa? Sorgiñen aldekoak ete dira ala onezkoak?

Milian eta Birleko'k beste ordu-erdi inguruan alkarragaz barriketan jarraitu eben Andeko'ra eldu arte. Ezkerrera Lotiña deritxon etxea ikusi eben baiña ez ziran sartu. Milian'ek esan eban:

– Oneik len lagun izan doguzanakaz berba egingo dabe eta urrengorako deituko dautsegu.

Andeko ez zan Botiola'ren antzekoa, etxe bat zan aundia ta garrantzitsua eta besteak Aurrekoa, Goikoa, Txikerra... Emen erreza izan zan berba egitea eta Atxetan egin eban itaun bardiña egin eutsen: An goian sasia, arria ta olakoak agiri dira eta etxe antzeko bat. Zer daukazue an?

Erantzuna antzekoa izan zan: An sogiña bizi da.

Emen be giro ezin-obea sortu eben eta agur beroa egin eta urrengora arte alkarrari esan eutsen.

Eta goazen egun onetako azken-ordura: Aldai auzora eldu ziran eta Milian'eri zirrara aundia egin eutson torrea ikusteak esan eban:

- Orra or! Barriro be torrea! Nor bizi ete da or? Jauntxuren bat?

– Birleko'k esan eutson:

– Goazen bertara, ikustaldi bat baiño ez da eta giro egokia ez ba'dago, ez joan geiago eta kito!



*Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.*

Lorentzo deunaren irudia (Andeko-Fruniz)

Urreratu ziran Torrera eta eta laster urten eban Fortun’ek Aldai bere seme gaztea ondoan ebala.

An ez zan ikusten morroirik, ez miraberik. Zori txarrez izkilloak eta gudarako tramankuluak bai.

Txeratsu alkar agurtu eben aita-semeak eta lekaide biak. Barretxua kendu barik esan eutson Milian’ek:

– Beste olako Torre baten be egon gara eta ango giroa ez jaku izan atsegin: Morroiak, mirabeak, serbitzailleak, arrokeria, gudarako gertakuntzak...

– Ba-dakit non egon zareen-esan eban Fortun’ek–. Birle’n. Ango jaunak daukaz olako arrokeriak, euskalduna izan be ez da-ta, baiña ni aspertuta nago. Gudaldi bat egin dogu Bakio’n eta emengoakaz joan nintzan ara, etorriak Asturias’tarrak ziralako eta euren errialdera bota



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Botiola’ko Mikel deunaren baseleiza (Fruniz).



***Argi Foto: Mungia.***

Fruniz: Lenengo elezearen atzeko atea. Zortzigarren gizaldikoa izan leiteke eta alboan dagoan ur bedeinkatu-ontzia be ordukoa. Or dagozan age-buru biak ekarriak dira.

bear ziralako, baiña gudakaz aspertuta gagoz. Larregi gudakatu dogu eta emen bakea bear da. Geiago ez naz iñoz gudara joango. Eta emengo bizi-lagunai buruz, zer naiago nik bakoitxa bere etxean zoriontsu bizi izatea baiño. Gu geurean eta eurak eurenean, bear danean alkarri lagundurta?

Or dagoz, etxe orretan, Bakio'tik ekarritako asturitz atxillotuak. Geu lez aske bizi dira.

Milian'eri berba oneik etorri jakozan burura: "Zu ez zagoz erreiñutik asago", baiña ezin esan, entzuleak ezer ulertuko ez leukeelako. Auxe baiño besterik ez eutson esan:

– Zelako poza emoten daustazun!

Pozik alkarrari agur egin eutsoen eta urrengo batera arte.

Birleko eta Milian euren zaldi bizkorretan Birle'rantza joan ziran. Milian'ek ez eban nai izan Birla'ren etxera joan baiña, Birleko'k beartu eban, laztategian lo egitekotan.



***Argi Foto: Mungia.***

Fruniz: Illobi bat estalduta agiri da. Ortik artuak izan leitekez ormetan dagozan arri landu biak, VIII gizaldikoak. Fortunio'ren aldikoa da illobi au. Berarena?

Goizean Milian itxartu zanean, goizeko otoitz-aldi luzea egin eban Birleko'gaz, eta, itzaltasunaz, Birla agurtu ondoren, Berriaga'ra biurtu zan.

Urrengo egunetan bizkor ibilli zan. Egun bakoitxean toki batera joaten zan, batean Fortun'en Torre-ra bestean Astroka-ondoko atxen barrenera, urrengoan Botiola'ra edo Andekora. Lenengo, adiskidetasuna sendotu eban, eta orretan bera zan mutilla! Gero lenengo kerigma laburra agertzen eutsen:

– Zuek bildurra dautsazuen Mari ta sorgiñak baiño gorago dagoan Inko Jaun aundia maite dot nik eta onek emon euskun bide-lagun dogun Kismi gure adiskidea ta anaia...

Gauzak sakontzen joiazala, besteakaz alkartzeko gogoa sortzen eban eta, erdi-ingurua dalako, gertakuntza-batzarrak edo katekumenadua Botiola'n ipiñi eben eta ara etorten ziran Astroka barrenekoak, Ande-ko'koak eta eta Torre'koak, guztiak euren zaldietan. Ikastaldi pozgarriak



***Argi Foto: Mungia.***

Arri landu au VIII gizaldikoa da eta izan leiteke “Fortunio”ren illobitik kendua. Sakristiko orman dago beste bat bardin-antzekoa.

izaten ziran eta Apostoluen “sinisten dot” edo “Gure Aita” ondo ulertzera eta otoitz egitera eltzen ziran. Zelako poza guztien fedea geroago ta sakonagoa ta aundiagoa zala ikusiaz. Zelako poza euren buruak sorginkeritik askatuta ikusteaz.

Illetak egiteko eta kristiñau illak itxaropenean eortziteko, iru eleizatxu egin ebezan: Torretik urrean Salbatzaillearena, Botiola’n Mikel deunarena, Andeko’n Laurentzio deunarena eta Astroka ondoko atxetan Kepa Deunarena.

Baiña lenengo pazko Bateo Nagusia egiteko eta gero egun aundi edo batzar aundietarako beti alkartzen ziran Botiola’n.

Milian poza sinistu eziñik bizi zan Espirituak ainbesteko eragiña eukalako eta Kristiñau barriak ez eben uste izango olako bake eta olako poza dakarren Barri Onik egon zeitekenik. Dana zan poza eta Espirituaren eragiña.

# Mari, sorgiñak, laminak, basajaunak, aztuak, sanatenes, begizkoarena, Peru maralako

Gaur Janduniz'ko baseleizea dagon inguruan, agertzen ziran iretxoak. Milian'ek an laguntzat artu eban etxeko jaunari esan eutson:

– Esan egistazu zeintzuk diran zuen jaunkotxu bildurgarriak.

Etxeko jaunak erantzun eutson:

– Pozik nago ona etorten zaralako eta ain maitagarri saiatazelako. Labur esango dautzut: Ortzi dogu Jaungoiko on eta alguztiduna. "In" deritxagu, zeruan bizi dala uste dogu eta orregaitik deritxagu Inko edo Jaun Inko. "In" zerua da, orregaitik esaten da iñ-ixiotua, iñetazia, iñuntza. Inko Jaun aundi ori urrintxu geratzen jaku eta urrago daukagu Mari, laiñoetan batetik bestera dabillena, onek be egia maite dau, guzurra gorroto. Berago dagoz Mari'ren serbitzaille lez sorgiñak eta laminak. Oneik emakumeak izaten dira, onak, baiña bildurra sartzen dauskue eta dirua kendu. Iretxoak emen ikusten doguz, zaldi itxuran etorri eta txarri-itxuran joaten dira eta ikarea sartzen dabe, basajaunak geure antzekoak dira baiña ez dira etorten gure artera. Gu baiño jakitunagoak dira. Aztuak gizonak dira eta galtzen jakuzan eta aiztuten jakuzan gauzak gogora ekarten dauskuez diru edo janari truke. Sanatenes zanetako urratua da eta sorginak otoitz eta oikune batzuk beteta osatzen dabe eta begizkoarena notiñai sartzen jaken gaisoa da, batez be ederrak diranai eta au sorgiñak osatzen dabe diru-truke. Peru Maralako'k sorgin-antzeko lamiñai orrazia ostu eutsen. Lamiñeak leioa jo eta esan eutson: Peru Maralako miru eratsia ekazu orrazia edo kenduko dautzut kortako ganadua edo azkazia (ondorengoa edo semea).

## Nueva comunidad cristiana en Fruniz

No olvidaba Milian los momentos amargos que le hizo pasar su amigo Villela y andaba obsesionado con el peligro de caer en otras situaciones parecidas. “Enemigos de la Cruz de Cristo” decía refiriéndose a ellos.

Pasaron varios días en Akosta todos los misioneros, incluído Birleko.

A la vuelta, como de costumbre, fue cada uno a su tierra de misión y Milian y Birleko se quedaron en Berriaga para fortalecer la fe de aquella comunidad, hasta que Birleko le dijo a Milian:

– Creo que esta comunidad se ha fortalecido y ya podemos salir a otras tierras. Milian oyó gustoso estas palabras que fomentaban su deseo de crear más comunidades.

Al día siguiente salieron de Berriaga, pero no como de costumbre bajando sino que continuaron sobre la loma. Cuando llegaron al lugar llamado Astroka y caminando por el llano vieron unas rocas a la derecha y una casa grande y hermosa al pie de las rocas. A la izquierda quedaban varias casas grandes y hermosas, pertenecientes hoy al pueblo de Fika. También de allí acudieron a las reuniones de Milian y luego formaron su comunidad de Fika. Hay allí un arco románico

Se acercaron sonrientes a la casa y fueron amablemente recibidos. Milian le dijo, sin más, al señor de la casa:

– ¡Oye! Ahí arriba veo una roca bonita y algo que me recuerda casas de brujas...

– Sí –respondió el Señor–. Y también bajan iretxos de ese lugar. Parecen caballos y, cuando los acariciamos, se vuelven cerdos y huyen. Además acudimos a la bruja en momentos difíciles como enfermedades por mal de ojo y esguinces o cuando nos asustan y perjudican los rayos y truenos o granizadas. Ella siempre nos atiende y ruega por nosotros a Mari.

– ¿Es grande la fe que tenéis en la bruja?

– Cada vez menos, pero seguimos creyendo y acudiendo a ella, le llevamos nuestros presentes.

– Pues, mira, yo vengo a anunciaros a alguien que está por encima de Mari. Pero vendré por aquí con frecuencia y hablaremos de éstas y otras cosas.

– Te agradeceré que vengas. Aquí vivimos muy solos. Gracias.

Se despidieron dándose la mano.

Siguieron caminando los dos y veían a la derecha de la senda como lugares de brujas, sobre todo en aquel lugar que hoy se llama Janduniz, porque allí se construyó más tarde una ermita dedicada Joan Deun o San Juan, pero sin hablar con nadie fueron avanzando por aquellos frondosos bosques hasta que encontraron un grupo de casas hermosas cuyos nombres averiguaron: Jauregi, Ormaetxe, Lezamiz, Goiri y Azkarre. Era el barrio llamado Botiola y las cinco casas eran independientes, troncales, y Milian vio allí la posibilidad de una comunidad cristiana.

Los dos que se acercaron a los nativos y les saludaron con afecto y se dijeron:

– Estos comentarán nuestra visita y la próxima vez acudirá también de esa casa algo más lejana (se refería a Lotina), y de aquella que está junto al rio (Ibarguen).

Andeko no era como Botiola. Aquí una casa era la importante y las demás derivaciones de ella: Andeko de suso (de arriba), de yuso (de abajo), la casa pequeña... Aquí era más sencilla la comunicación. Milian hizo la misma pregunta que junto a las peñas:

– ¿Qué hay allá arriba, entre zarzales?

– La respuesta también fue semejante:

– Allí vive la bruja...

El ambiente que encontró en todos ellos fue muy bueno y después del intercambio de simpatía, se despidió con promesa de visita frecuente y rogándoles que comuniquen la visita a los de casa cercana, hoy llamada Batiz y al molino de Gomoa.

•••

Siguieron su correría misional y llegaron a Fruniz al atardecer. Milian se llevó un susto cuando se encontró nuevamente con una Casa-Torre. Estuvo a punto de no acercarse, pero le animó Birleko. En cuanto llegaron les salieron al encuntro Fortun y su joven hijo Aldai. Aquí no se veían esclavos. Había algunas armas reti-

radas. Se saludaron cortesmente. Milian no apagaba su sonrisa sencilla y simpática:

– Hemos estado en otra torre parecida, pero allí el ambiente era otro. Allí había esclavitud y soldados armados dispuestos a la guerra.

– ¡Ah! sí –dijo Fortún–. Habéis estado con Villela. Sólo allí hay cosas de esa índole. Nosotros somos enemigos de toda guerra. Hace poco nos llamaron a Bakio para rechazar un ataque enemigo y ganamos. Pero estamos demasiado hartos de guerras y sus consecuencias. Nunca más iremos a la guerra ni nos prepararemos para ella. Queremos vivir en paz con la gente de aquí y ayudarles para que sean felices cultivando sus tierras.

¡Mira! en esa casa viven los asturianos (asturitzak) que trajimos cautivos, pero son libres en su casa Asturizaga o Astuitza.

Le agradaron a Milian estas palabras y le daban ganas de decirles: “Tú no estás lejos del Reino”. Pero aún no lo iba a comprender.

Se despidieron amigablemente y con promesa de frecuentes visitas.

Milian acompañó a Birleko hasta Villela y trató de despedirse pero oyó estas palabras:

– No te vayas que anochece. Descansa aquí. Rezaremos juntos y mañana podrás marcharte. Milian aceptó la propuesta con la condición de dormir en el pajar. Al día siguiente, después de una larga oración y de saludar cortésmente a Villela, se fue para Berriaga.

Los días siguientes fueron muy movidos para Milian. Cada día visitaba un lugar, sin prisa, derrochando simpatía. Un día a las peñas junto a Astroka, otro a Botiola, otro a Andeko o a Fruniz... Primero captaba la benevolencia en todas partes y luego, poco a poco, manifestaba el kerigma:

– Vosotros teméis a la bruja y a Mari, pero yo os voy a mostrar el nuevo rostro de Inko jaun o Jainko y os traigo la amistad de Kismi su enviado.

Cuando estaba claro el kerigma suscitaba el hambre de vida comunitaria y de catecumenado, sin prisas, se familiarizaban con

**el Padre Nuestro (Gure Aita) y el credo o símbolo de los apóstoles. La consecuencia indefectible era el gozo y la desaparición de todo temor.**

**Para relebrar funerales y enterrar los cuerpos de los nuevos cristianos con la esperanza de la resurrección, construyeron pequeños templos: Cerca de la Casa-Torre el de la Transfiguración o Salvador, en la cima de Andeko el de San Lorenzo, en Botiola el de San Miguel y en la peña cerca de Astroka el de San Pedro, y abajo San Juan o Janduniz pero para celebraciones importantes como la Pascua y los bautismos, siempre acudían a Botiola.**

**Milian sentía enormes consuelos al ver estos resultados y en sus arrobos oracionales se le oía decir:**

**– ¡Basta, Señor! ¡Basta de alegrías!**

**De esta alegría de Milian participaban todos los neófitos de todas las comunidades.**

# Mari, brujas, laminas, basajaunes, adivinos, curanderos, mal de ojo, Peru de Marala

Los iretxos aparecían cerca de donde hoy está la ermita de San Juan en Janduniz. En aquellos tiempos Milian habló sobre ellos con el Señor de la Casa de allí.

– Dime: ¿cuáles son vuestros dioses menores pero temibles para vosotros?

El señor de la casa contestó:

– Estoy contento porque sueles venir a visitarnos y porque eres tan amable para mí. Te diré brevemente: Ortzi es nuestro Dios grande y bueno. “In” es para nosotros el cielo y por eso le llamamos inko Jaun Jainko. Este Señor del cielo nos resulta lejano y por eso acudimos a la Señora Mari que va en las nubes de Amboto a otros montes y que ama la verdad y castiga la mentira.

A nivel inferior están los servidores de Mari: las Brujas. Suelen ser mujeres que atemorizan y nos quitan dinero y bienes.

También vemos por aquí los irechos, éstos no son malos, vienen con una figura de animal, se transforman en otro animal y huyen.

Los basajaunes son hombres muy altos, cubiertos de copiosa barba o pelo, son más sabios que nosotros y nos han enseñado bastante sobre el cultivo y han traído la sierra para la madera.

A los adivinos acudimos cuando algo se nos pierde o se nos olvida.

Cuando tenemos trauma oseo, vamos a las brujas que practican el sanatenes con ritos y plegarias a Mari.

Abunda mucho por aquí el mal de ojo que perjudica a personas de buen ver y lo curan también las brujas, pero a cambio hay que llevarles presentes y dinero...

Hemos conocido a Peru de Marala que cogió junto al rio el peine de las láminas y aquella noche la lámina le llamó en la ventana de su dormitorio y le dijo: “Peru de Marala,
milano abatido,
dame mi peine
si no te quitaré el ganado
o me llevaré tu heredero.

# 11.– GAMIZ’KO MAGDALENA TA KAFRANGA

Arizti eder bat dago Diatxak deritxon lekuan. Ariztiak 6 km. dauz luze eta lau zabal, guztiz 24 km. lautu. Aritzak oso zarrak dira eta Diatxak deritxon lekua beti izan da bildurgarria. Antxe batzen dira Fruniz, Gamiz, Fika eta, aurrerantza, Bilbao’rako antxiñako gurpide edo erri-bideak.

Diatxak izena ez da besterik “Diegoaretxeta”ren laburpena baiño.

Gaur gogoratzen dogun ibillaldi onetan Diatxetara eldu zan Milian.

Berriaga’tik urten eban, baiña, Astroka’ra joan barik, mendi-gaiñearen erditik Asabauru’ra jatzi zan eta andik bera gurpide edo erri-bide zabalera eldu. Oneri jarraituz, Diatxetara eldu zanean, Jaungoikoa era berezian bere inguruan egoala somau eban eta otoitz onek urten eutson barru-barrutik:

– Zu zara Jauna munduaren eta arezti eder onen Egillea, Zu, inguruan bizi diran gizakien Salbatzaillea, Zu lurraren gaiñea barriztatzen dauan Espiritu bizi-emoillea: Kendu egizu gizadiaren bildurra, kendu guzurrezko sorgiñen indarra, bialdu gaur zure Espiritu barritzaillea!

Diatxak goian itzi eta zugazti aundia amaitu-artean berantza egin eban eta barrenean gaur Madalen-baso deritxon tokia aurkitu eban eta toki orretan Sorgin-etxea. Antxe bizi zan eta antxe egoan sorgiña, inguruko etxeetatik ainbeste eskari izaten eban andra ikaratua.

Milian’ek onegaz alkar-izketea asi eban. Andere ikaratua zala esan dogu eta alan zan. Zeozegaitik susmoa eukan sorgiñen aldia amaitzear egoala. Orregaitik zan ain andere aldakorra, bein barrezka eta bein negarrez. Ara zer esan eutson azkenean Milian’eri:



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Mikel deunaren irudia (Gamiz'en).

– Gaurkoz bizi gara baiña gizakiak ez dauke sinisterik eta gitxiago gure lanari dirua edo ordaiña emoteko gogorik.

Milian'ek aurpegira bota eutson euren jokabide okerra, guzurren truke saria eskatzea, alperrekoak dirala dakien araoak egitea... azkenean dana "utsaren utsa", dana ezereza. Eta ortik agertu eutson jakabide barri baten bear-izana eta ortik aurrera kristiñauen kerigma edo irakatsien laburpena.

Sorgiñagaz egon eta gero Lizardi'ra, Kafranga'ra, Agarre'ra Arantzolo'ra, Kapriaga'ra Amuni'ra eta Bolintxu errotara joan zan, egunen joanean, eta baserri eder oneitan etxeko jaunagaz artu-emon pozgarria izaten eban beti eta sorgiñaren uskeriak agertu ondoren gure kerigma agertzen eutsen, beti pozez eta alai.

Denpora gitxi barruan asi ziran batzarrak egiten eta orretarako guztiak batzen ebazan Kafranga'ko atearte ederrean. An ikusi daitekezan sarritan Milian, Sorgiña, Agarre'koa, eta beste esandako etxeetakoak.

Guztien poza geroago ta andiagoa zan eta kerigma oiña-rria ondo sendotu eta gero Apostoluen sinis-kintza edo sinboloa eta Gure Aita irakasten eutsezan, azkenengo au abesti ederra egi-ñez. Dana ondo ulertu eta bakoitxak beragan-du artean, ekin eta ekin egiten eban Milian'ek. Eta guztiak onartu eben sorgiñen bildurra uxatua izatea.

Eldu zan pozezko egun zoragarria, guz-tiak euren fedea bateoaren bidez ager-tu, euren oker-bide guztiak kendu eta, izkuntza barrian, pekatu guztiak parka-tu eta bateoa ospatze-ko eguna.



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Arrieta'n: San Kristobal'en irudi ederra.

Kafranga'ko atear-tean izan zan ospaki-zuna eta antxe dago gaur be gomugarri dan ur-ontzia kurtze bategaz arrizko age baten. Iruditxu au Lizardi'ko jaunak egin eban, argin ona zan-eta.

Baiña sorgin etxea egoan lekua bildur-iturri gertatzen jaken eta antxe egin eben eleizatxu bat, beste leku batzutan lez otoitzerako alkartzeko eta, ilten ziran kristiñau barriak lurperatzeko. Maria Mag-dalena artu eben zaindari lez eta inguruko basoari Madalen-baso ipiñi eutsoen izena, gaur arte bizirik dagoan izena.

An serore bat bear zan eta sorgiña izandakoa, fededun bizi-bizi biurtua, ipiñi eben arduradun. Lengo bildurra garbi kenduta joaten ziran baragana batzarra egiteko eta Inko Jaunaren edo Jainkoaren laguntza eskatzeko.

Sarritan etorten jaken Milian eta onek ezin ebanean, ordez, Birleko be etorten zan.

Orra or ogei bat laguneko alkarte zoriontsua, Milian'en bizitzan be koroi barria lez zana.

## Auzoak eta auzoak

Lekaideak egunero izaten dabez isilaldi luzeak. Sarritan egun osoak be bai. Olako egun baten Milian, berak Barri Ona iragarri dautsen auzoak zelakoak diran pentsatzen egoan.

Auzo batzuk, Andeko esaterako, jatorri bakarrekoak edo monojenikoak dira: Etxe bat egin eben, kasu onetan Andeko, eta gero urterik urtera beste batzuk, seme-alabak zelan ezkondu alan: Aurrekoa (Aurrekoetxe) Goikoa, Bekoa, Etxetxikerra. Eta alboan dago Batiz, beste jatorri batekoa, eta onek be beste bi egiten dauz, Goikoa ta Bekoa. An berago dago guztientzat errotea eta gaiñean serore-etxea izandakoarena dirudiana. Baseleizaren ondoan oiñarriak.

Botiola'n, ostera, jatorri asko dagoz, auzo polijenikoa da, eta orregaitik dau etxe bakoitxak bere izen ederra: Goiri, Uriarte, Ormaetxe, Jauregi, Azkarre Lezamiz. Etxebarri be ba-dago, au beste orreitarikoren batek egiña. Lotiñak iru dira baiña jatorri bakarrekoak. Bean dago beste bat, Ibarguen eta alboan Legarreta. Au errotea. Eta abar.

Alkartea sortzeko orduan izakera au kontuan euki bear izaten dot. Sarritan erdi-senide izatea ez da izaten mesedegarri, bai, ostera, bakoitxak bere jabetza osoa ta askea eukitea. Onelan nortasuna obeto agertzen da.

Etxe guzti oneitan etxeko jauna artu bear da kontuan batez be. Au eta ondorengoa dira etxean geratuko diranak eta auzoa osotuko dabenak. Besteak onegaz alkartuta etorten dira eta urriñera joan arren be, beti dira etxean onartuak, maian lekua dauke, lo egiteko ogea be bai eta illobian be bai gorpua eortzeko. Euskaldunen lege oneik oso egokiak eta anaikorrak dira. Jesus'en Barria artzeko lagungarri gertatzen dira.

## La Magdalena y Kafranga en Gamiz

El robledal de Diego Aretxeta, conocido como “Diatxak” se extiende en 24 $km^2$. Los robles son antiquísimos y entre ellos reinan un silencio y una soledad imponentes. En un punto de este robledal coinciden los linderos de Gamiz, Fika y Fruniz y en el mismo lugar se encuentran los caminos carretiles más usados: De Fruniz a Fika y Bilbao.

Milian salió, como casi siempre, de su comunidad de Berriaga y siguiendo la loma, en vez de continuar hasta Astroka, bajó al valle hacia medio camino por Asaburu, entró pronto en el camino real de Fruniz a Bilbao y en dirección contraria llegó a Diatxak. En este lugar misterioso se sintió llamado a la oración y se dirigió a Jauninko:

– Tu eres, Señor, el Creador del mundo y concretamente de este inmenso robledal de Diego. Tu eres Salvador, por tu Hijo, de los hombres que viven por estas tierras, tú eres el Espíritu que renueva la haz de la tierra. Quita los temores y los miedos de esta gente, aparta de aquí los cultos a dioses falsos y la brujería. Envíanos tu Espíritu renovador.

Dejando atrás el inmenso robledal de Diego descendió al lugar llamado hoy Madalen-baso donde encontró la casa de la bruja habitada por ella que recibía tanto dinero y tantos presentes de los habitantes del lugar.

Milian entró en conversación con ella sin ningún reparo. Era una mujer asustada y que sospechaba que sus supercherías llegaban pronto a su fin. De hecho había perdido ya mucha clientela. Unas veces se reía y otras lloraba sin que hubiera especial motivo para estos cambios. Al fin le dijo a Milian:

– Por ahora vivimos, aunque malamente, pero la gente va perdiendo la fe y la confianza que tenía en nosotros para entregarnos su dinero y sus presentes.

Milian le echó en cara sus supercherías y engaños a la gente ignorante. En toda su actuación sólo había vaciedad. Y fue manifestándole la posibilidad de una renovación a fondo y le presentó el acostumbrado resumen del kerigma.

**Terminada la entrevista, visitó Lizardi, Kafranga, Agarre, Arantsolo, Kapiriaga y Amuni, llegó hasta el molino de Bolintxu. En todas las casas habló sin prisas captando la benevolencia de todos.**

**Poco tiempo después empezaron las reuniones en el portal de Kafranga a las que acudían los señores de cada casa y también la bruja.**

**Nuevamente el resultado fue consolador para Milian y también para los asistentes.**

**Llegado el día oportuno, una vigilia Pascual, se celebró allí mismo en el portal de Kafranga el Bautismo general con asistencia de los cinco monjes misioneros.**

**El Señor de Lizardi, que era buen escultor, dejó impreso en una viga del portal un recuerdo de este gran acontecimiento, como lo recuerda Labayru en su historia.**

**Pero siempre procedía un miedo ancestral desde el robledal y la casa de la bruja, por lo que hicieron allí una ermita para funerales y la otras celebraciones. La antigua bruja hoy gozosa y ferviente cristiana, superados sus miedos, quedó encargada de la comunidad, recien nacida. En adelante se le llamará hermana o serore y tendrá instrucciones concretas para atender a la comunidad.**

**Milian los visitaba con frecuencia y oraba con ellos.**

**Así quedó constituida una comunidad de más de 20 cristianos.**

## Bizigotak eta euskaldunak

Euskaldunak geienetan ondo konpondu dira inguruko erriakaz. Erromatarrakaz be bakean, itunaren bidez.

Baiña ez orrelan bizigotakaz. Iparraldean txarto frankoakaz.

Zergaitik alkar ulertu-ezin ori? Eurak guda-zaleak ziralako, gu menperatzea nai ebelako. Orregaitik esaten dabe errege guztiak “domuit vascones”. Guztiak ori esateak argi agertzen dau iñoz ez zala izan egi osoa.

Bizigotak euren eleizea eratu eben Toledo’ko Eleiz-Batzarretan, baiña ara ez ziran joaten gotzain euskaldunak, esaterako Iruña’koa, euren menpean ez gengozanean. Ori agirietan ikusten da. Toledo’n, gaiñera, Eleizea eta erri-agintaritza batera ebiltzan eta Euskaldunak iñoz ez dabe bide ori jarraitu. (Ikusi Latiegiren liburua)

Bizkai’ra ez, baiña, gitxienez, Mungialde onetara ez ziran iñoz sartu bizigotak, baiña gure baseleizetako ormetan ba-daukaguz bizigoten aldiko ederlanak. Nondik ori? Edertia bere lurraldetik kanpora be zabaltzen dalako. Esaterako, Fruniz’en Tiberio’ren aldiko illari bat dago, baiña orrek ez dau esan gura Tiberio’ren erromatarrak Fruniz’en egon zirala, bai ostera emendik ara joandako salerosleak edo gudariak, ango oiturak eta edertia ekarri ebezala.

Leio bi dagoz Mungia’n bizigoten aldikoak (VII gizadikoak edo...) bata San Anton’en eta beste Llona’ko Magdalena’n. Orregaitik ipiñi dogu Milian’en alkarte bat Llona’n. Bizigoten aldian baseleizea ba’egoan, askoz lenago izan zan toki orretan lenengo alkartea.

Antxiñako gauzak aitatzekotan, Fruniz’ko ur-bedeinkatu-ontzia gogoratu bear da. Atzeko ate-ondoan dagoana. Gauza bitxia da! Esan lei prerromaniko aldikoa dala, Asturias’ko Rami-ro’tarren aldikoa. Eta ara non Fortunio’k artu-emonak izan ebazan asturitarrakaz. Ori be zortzigarren gizaldia baiño lenagokoa da eta orregaitik ipiñi dogu beste alkarte bat Fruniz’en.

Ez daigun aiztu gure edestia jakiteko danik ezertxu be.

# 12.– MUNGIA'KO LLONA'N

Egun baten Milian Birle'ra urreratu zan, beti lez Birla jauna ikusteko gogo aundi barik eta Birleko'gaz berba egiteko bear-izanak eraginda.

Asko poztu ziran alkar-ikusteaz eta otoitz-aldi luzea egin eta laster alkar-izketan asi ziran:

– Zu, Birleko, begiratu egizu irudi au:




Or ikusi zeinke, gitxi gorabera, gure alkarteak non kokatuta dagozan: obo-erdi orren inguruan, baiña obo edo mako-erdi orren barruan lurralde zabal bat dago. Oraindiño illunpean bizi diran gizon eta emakume asko dagoz or. Beserriak ugari dagozan lekua da. Orregaitik, or erdian alkarte zabal bat sortu bear da orrelan gure misinoi-lana bere bidean jarteako. Dana ikusi dot eta tokirik onena Llona deritxon lekua dala uste dot. Or batu geinkez Arrieta, Markaida, Belako eta Mungia'ko ordezkariak...

Birleko'k auxe erantzun eutson:



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Leio bisigotikoa Mungia'n: San Anton (VII gizandikoa).

– Gauza ederra ta egokia bururatu jatzu, Milian. Beste alde batetik Birla jauna ekin eta ekin dabilt Atxuri'n eta Laukariz'en be alkarteak sortu bear doguzala esaten. Laukariz menpean dauko eta errez lortuko dau elburua, izan be bere esku daukan Berreaga'ren arlo bat dala dirudi. Eta Atxuri'n gure barriak zabalduta dagoz eta erreza izango da alkartea lortzea.

Milian'ek buruari alde bietara eragin eta esan eban:

– Bildur naz Birla'ren aundikeriaz. Ori ez da gure bidea! Baiña bete daiguzan asmo orreik eta izan daitela Jesus'en Barri Ona egokiro zabaltzeko.

Asi zan Milian asmo orregaz auzoak ikertzen: Markaida'n guztiak aurkitu ebazan maitekor, bardin-antzean Belako'n eta Llona'n be. Gaitxagoa izan alkar-izketea Mungia'n. Emen erritarrak alkarragaz ez ziran ondo konpontzen eta olakoetan gatxagoa izaten da maitasunaren Barria zabaltzea. Azkenean Mungia'n alkarren ondoan alkarte bi sortu bear izan ziran. Etxe asko be baegoan inguruetan eta tira...

Orain-arte ainbeste lekutan erabilli eban jokabidea bera artu eban: Lenengo banaka ikustaldiak egin etxeetara eta adiskidetasuna lortu, gero guztiai deitu batzarrera Llona muiñoaren gaiñean. An batu ziran



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Salbatzaillearen Markaidako irudia.

urteetan gertakuntza egiteko edo kerigma'ren gaiñean fedeerakundea sendotzeko. Azkenean, guztiak batera eta Zapatu Santu gabean ospakizun ederra ta Bateoa.

Orretarako Llona'n bertan egin eben baseleiza bat.

Baiña Markaida, Belako, Mungia ta Llona'ren artean bide luzeak eta ez ain onak egozan eta, denporearen joanean, auzo orreitan bertan baseleizak egitea erabagi eben: Markaidarrak Jesus'en Antza-Aldatzea edo Salbatzaillea artu eben zaindari lez (Salbadore), eta lekaide bat arduratu zan an bizi izan eta laguntzeko. Belako'n eleizea egin eta orduan santu barria zan Antonio abade deunaren ardurapean jarri eben. Llona'n eginda euken baseleizea Magdalena deunaren ardurapean jarri eben. Mungia'n, ostera arazoak izan ziran. Baseleiza bi egin bear izan ebezan, bata Andra Maria'ren zaintzapean eta Kepa deunarenean bestea.

Ez jakon atsegin Milian'eri zatiketa ori, baiña Birleko'k beti gauza bera esaten eutson: "Gura dana ezin danean al dana egin bear da".

Mungia'ko taldeen ardurea bertan bizi zan Munio Lekaideak artu eban.

Beste barri larri bat be artu eban Milian'ek: Mungia'ko alkarteetara musturra larregi sartzen ebala Birla'k. Min artzen eban Milian'ek, eta geroago ta geiago, Birla'ren jokabideaz.

•••

Milian bizi zala, Mungialdeko erri eta auzo guztietara sartu zan Barri ona, baiña banaka asko ziran oraindiño fedea artu ez ebenak edo jentillak.

Bere bizitza luzea pozez beterikoa izan zan eta zartzaroan, ondorena ain oparoa zala ikusita, asko pozago bizi zan beti Jaun-Inko edo zeruko Jaunari eskerrak emoten.

•••

Emen amaitzen da elebarri au eta geratzen diranak elebarriaren ostean lau gogaketa dira, lau geigarri, eraskin edo "apendice": Lenengoan kofradiak aztertuko doguz; bigarrenean lenengo zortzi gizaldi orreitan jaungurtza edo kultoa zer zan; irugarrenean, gure elebarrian zerk daukan oiñarria edesti-aldetik esango dogu; eta laugarrenean Milian'ek sortutako alkarteak zelan jarraitu daben gaur arte.



***Argazkia / Foto: Eleiz Museoa-Museo Diocesano de Arte Sacro / Angel Gómez.***

Atxuri'ko Martin deuna: Kalixa.

## Llona de Mungia

**Una de las veces en que Milian se acercó a Villela para orar con el monje que estaba allí, después de larga e intensa oración, le dijo a Birleko:**

**– ¡Oye! Mira y examina esta pequeña imagen que he diseñado:**




**Como ves, esta zona entre Berriaga y el mar está rodeada de comunidades, pero falta una comunidad en el centro. Me he enterado de que llaman Llona a este barrio central. Tenemos que iluminar esta zona con una luz en el centro, una nueva comunidad.**

**Birleko aceptó encantado esta propuesta. Pero, por otra parte, el señor de Villela pide con insistencia comunidades en Laukariz y Atxuri. Laukariz es como feudo suyo y ahí le será fácil fundar y la gente de Atxuri ha recibido ya la evangelización por capilarización, aunque hay que crear comunidad.**

**Milian movió la cabeza en señal de duda y dijo:**

**– Tengo miedo al Sr. de Villela y a su arrogancia y poder.**

**Pronto empezó la actividad de Milian en Llona, de la misma manera que en otros centros, pero se encontró con una fuerte dificultad en lo que hoy es Mungia: el pueblo estaba dividido... Al fin hubo que optar por formar dos comunidades, cada una con su lugar del culto. Eran las comunidades de Andra Maria y de Kepa deuna.**

**Después de captar la benevolencia, de proponer el kerigma y estructurar las verdades de la fe, se celebró un hermoso acto de Bautismo en una vigilia pascual. Para esta celebración se construyó un lugar de culto en Llona.**

**Más tarde, como las distancias resultaban demasiado largas para Markaida, Belako y Mungia, cada nucleo de éstos edificó su lugar de culto: En Markaida lo dedicaron al Salvador, en Belako se acordaron del santo recién conocido, el monje San Antonio Abad y en Llona escogieron como patrona a Santa María Magdalena.**

**De las comunidades de Mungia se hizo resposable un abad llamado Munio que no pertenecía al cenobio de Akosta.**

**Llegó a oídos de Milian que en una de las dos comunidades de Mungía intervenía mucho el Sr. Villela, cosa que no le hizo ninguna gracia.**

**•••**

**A pesar de haber comunidades florecientes, quedaban aún muchos paganos en la zona, cosa que le preocupaba hondamente.**

**•••**

**Su larga y laboriosa vida estuvo llena de satisfacciones y en su ancianidad, viendo el fruto de su labor misionera, vivió más feliz dando gracias a Jainkoa.**

**•••**

**Aquí termina esta breve y repetitiva narración y sólo quedan algunos puntos que aclarar como apéndices: ¿Qué es una Cofradía? ¿Cómo vivía la fe los cristianos hasta el siglo VIII? De todo lo que hemos dicho qué cosas tienen base histórica? ¿Cómo siguieron aquellas comunidades formadas por Milian hasta el día de hoy?**

## No todos los barrios son iguales

Juntamente con la oración los monjes practican el silencio, que les ofrece grandes espacios de tiempo para reflexionar.

Reflejamos aquí un espacio de éstos en que Milian piensa sobre distintos barrios que ha encontrado en sus correrías misioneras.

Unos barrios, como Andeko, por ejemplo, son monogénicos. Tienen una casa que es central y las demás son derivadas: La de delante, la de arriba, la pequeña... Quedan las tres llamadas Batiz, que proceden de la del centro, y la casa antigua de la bruja, después serora que está en lo más alto. Y queda el molino, allá abajo, para todos.

Botiola en cambio es poligénica. Cada casa tiene su señor, su nombre: Lezamiz, Ormaetxe, Uriarte, Jauregi Azkarre, Goiri. Hay un Etxebarri que será construcción de alguna de las otras. Tenemos en Lotina tres que proceden de una. Abajo queda Ibarguen, el molino de Legarrera y otras.

A la hora de implantar las comunidades, cada estilo tiene sus ventajas e inconvenientes: Los monogénicos se unen más estrechamente, pero los poligénicos practican mejor la igualdad.

En toda casa debemos dar importancia al Señor de la casa y a su posible heredero. En él está el futuro. Los demás familiares suelen salir fuera, pero cuando vuelven encuntran mesa, cama y hasta sepultura. Estos usos de los euskaldunes son muy adecuados y cercanos al mensaje evangélico.

# 13.– 1go GEIGARRIA: KOFRADIAK, EREMUTARRAK, SERORAK ETA FREILAK

Milian'ek sortu ebazan alkarteetan beti geratzen zan arduradun bat: Mungia'n ipiñi dauan Munio abadea askoz geroagokoa da, millagarren urtea igaro ta gerokoa, baiña benetakoa. Donemiliane'ko liburu zarretan agertzen dana.

Birla edo Billela'ra berak ekarri eban Lekaide gazte bat eta "Birleko" izena ezarri eutson. Egia da Birle'n eremutar'tar bat eukala Birla edo Villela'k, besteak asmakizunak dira.

Toki bi orretatik kanpora Milian bera ipinten dogu arduradun bat ezarten: Batzutan lengo sorgiña bera biurtuta gero edo beste kristiñau barri bat. Iñoz arduradun orrek "serore" izena artzen dau.

Elebarrian sortzen diran alkarteak dira gure ustez gero kofradi biurtzen diranak. Gaur ugarituta eta aldatuta agertzen jakuz. Batzuk erdi-ilda lez dagoz eta beste batzuk, ostera bizi-bizi.

Bizirik dagozen kofradiak, geiago edo gitxiago, Bizkai guztian be badagoz, erakunde oso ona eta naste-bakoa dauke: 1) urtean bein batzarra, san Martin-inguruan, eta batzar orretan aldatzen da maiordomua etxerik etxe. 2) Urte-barruan santu bi ospatzen dabez geienak eta meza-egunean maiordomu zarrak janaritxuak eta ardaua eskintzen dauz. Sarritan kontu-liburua eroaten da eta olako liburu asko dagoz Bizkaiako eleizearen agiritegian. 3) Bideak konpontzeko auzo-lana egiten da. 4) Basorik-edo ba'dauke, basozaiña izendatzen da eta zergak ordaindu. 5) Baseleizea konpondu, baiña zeregiña au ez dau artu nai izaten kofradiak, eleizea guztiena dalako eta geienetan Eleizeak, Udalak eta auzoak alkartuta egiten da dana.

Norenak dira baseleizak eta baso edo ondasunak?

Baseleizak ez dauke jabe-agiririk eta auzitegira joan ezkero eleizea erabilten dauanak dauko jabe-eskubidea. Basoak eta etxeak be jabe-agiri barik dagoz eta galtzeko arrisku aundian. Kofradikoak arduratu bear dira. Nik dakidala, Llona'n konpondu dabe arazoa, beste iñon ez Mungialdean. Zer egin? Biderik egoikiena auzoko sendiak alkartuta legezko alkartea sortu eta onen izenean ondasunak ipintea da, baiña orretarako kontau Eleizeagaz.

Baseleiza batzuk etxe baten barruan dagoz. Mungia'n, esaterako, San Anton, Santa Marina, San Martin. Beste batzuk alboan dauke Freila'ren edo eremutarraren edo serorearen etxea, gaur geienetan erdi-galduta. Fika'n etxe batek dauko "serore-etxe" izena, baiña antxiña galdu eban kofradiak edo alkarteak, Derio'n goiko parroki-ondoan "seretxe" dago. Gaur zarren egoitza.

Ba-dago or jakin-bearreko edesti bat: Erregeak, 1840n.urte inguruan agindua emon eban ondasun guztiak saltzeko eta berari dirua bialdu, berak urtero interesak ordaintzekotan. Bete zan erregearen agindua eta dirua bialdu, baiña sekula ez da artu obaririk. Dana dala, kofradikoak be zur egozan eta errematea egin zanean, eurak erosi ebezan. Aldakuntz aundia! Orrelan ez dira kofradiarenak, erosleenak. Orrek naste aundiagoa sortzen dau arazo onetan.

## Un diálogo amargo
## (Villela y Milian)

**Milian:** ¡Buenos días, Sr. Villela! Permíteme hoy que me sincere contigo y te manifieste mis preocupaciones internas.

**Villela:** Si. Hace tiempo que observo ese amargor en tu rostro. ¿Piensas, quizá, que no me porto como buen cristiano?

**Milian:** ¡No, Villela! Te veo muy aficionado a las guerras y que tienes en tu casa esclavos y esclavas. Veo riqueza excesiva en tu vida. Sojuzgaz a la gente y hasta a la comunidad cristiana de aquí y te aprovechas de la comunidad. Y el mensaje de Jesús pide igualdad, fraternidad, pobreza y amor.

Villela: Si, Milian. Eso aprendimos en el catecumenado de Berriaga, pero eso es pura utopía. Aquí encontramos guerras defensivas y ofensivas. Es el mismo Jainko que ha puesto a unos más arriba que a otros.

**Milian:** ¡No, Villela!, ¡mil veces no! ¡Hasta llegas a apoderarte de las limosnas que recoge la comunidad entre los suyos para socorrer a los necesitados!

**Villela:** Yo tengo mi categoría social que debo defender.

**Milian:** No tengas nunca bajo tu bota a la comunidad de Cristo ni a ninguna persona, al fin todos son hijos de Dios. No toques a la Comunidad de Jesús, ¡por favor! El que toca así a Cristo o a su comunidad, está muerto en su interior.

**Villela:** ¿Quiere decir eso que me arrojas fuera de la Comunidad cristiana?

**Milian:** ¡No! ¡No te arrojo! Pero teniendo, como tienes, una fe deformada, tú mismo te sitúas en último lugar. En la Comunidad son preferidos los pobres. Nosotros ensalzamos a esos pobres que tú pisoteas.

## Los visigodos y los vascos

Los vascos generalmente se han entendido bien con los pueblos que los han rodeado. Incluso llegaron a acuerdos implícitos o explícitos con los poderosos romanos.

Pero esto no fue posible con los visigodos ni con los francos en el norte.

¿De dónde surgía esta imposibilidad de comprensión? Porque ellos eran guerreros y opresores. Por eso se lee en todas las crónicas que sus reyes la famosa expresió: “Domuit vascones”. La repetición indica ya que nunca se cumplió.

Los visigodos organizaron su iglesia en los famosos Concilios de Toledo, después de la conversión de Recadero, que puede considerarse como de conveniencia política. Allí se mezclaban, por sistema, temas religiosos y políticos. Por eso, los obispos vascos, incluido el de Pamplona, no acudían sino en tiempos en que estaban sometidos. Puede verse esto en los libros interesantes de Historia de la iglesia vasca que está publicando Bixente Latiegi.

A ninguna parte de Bizkaia, menos a la zona de Mungia, entraron los visigodos, pero en nuestras ermitas aparecen obras de arte de la época visigótica. ¿Cómo puede ser eso? Porque el arte llega más lejos que los límities políticos. Hay en Fruniz una estela del tiempo de Tiberio sin que los romanos hayan estado jamás allí. Eran los comerciantes y los soldados los que traían costumbres y arte romanos. Así ocurrió con los visigodos.

Hay en Mungia dos ventanales del tiempo de los visigodos, de hacia el siglo VII, uno en San Antonio y otro en la Magdalena de Llona. Por esta razón instala la narración una comunidad de Milian en Llona. El existir un ventanal nos indica que la fe ahí fue mucho anterior.

Y, recordando monumentos antiguos, hay en Fruniz un rostro, en la pila de agua bendita de la puerta zaguera, muy especial, que yo pienso que es anterior al siglo VII puesto que forma conjunto con un sepulcro de esas fechas, como se deduce de las dos piedras que se conservan en paredes de la sacristía, procedentes, sin duda, del tímpano de ese sepulcro, que llamaremos de Fortunio. Puede ser estilo ramirense, puesto que Fortunio, según tadición, luchó contra los asturianos en Bakio en el siglo VIII o VII. También nos ha parecido motivo para introducir en la narración la comunidad de Fruniz en Botiola.

## Apéndice 1.º: Cofradías, ermitaños, seroras y freilas

**En las comunidades que aparecen creadas en la narración queda siempre un responsable. En Mungia aparece al abad Munio que es de mucho más tarde de 1050 según testimonio de los manuscritos de San Millán de la Cogolla.**

**Para Villela fue el mismo Milian el que trajo un monje. Se sabe que en Villela residía un ermitaño desde época muy antigua.**

**Fuera de esos dos casos, es el mismo Milian el que aparece poniendo responsables. A veces las antiguas brujas convertidas asumen esta labor con el nombre de sesoras.**

**Pensamos que esas primitivas comunidades, más o menos de ficción, son las que luego se convierten en cofradías. Hoy son más numerosas y algunas apenas conservan ni el nombre de cofradías. Otras, sin embargo, tienen mucha vitalidad.**

**También existen cofradías en casi toda Bizkaia, con más o menos vitalidad e incluso propiedades.**

**La vitalidad de las cofradías es muy simple: 1.– Una reunión anual en torno a San Martin. Se nombra mayordomo turnándose las casas. 2.– Celebran, generalmente, una fiesta patronal al año y otra de un santo. Ese día ha de ser organizado por el mayordomo que avisa al sacerdote y trae algo de comer y de beber para después de la misa. Suele llevar el libro de cuentas que recibe del anterior y entrega al siguiente. Hay bastantes libros de éstos, algunos del siglo XVI, en el Archivo Diocesano. 3.– Organizan el auzo-lan o trabajo vecinal para reparar caminos. 4.– Si la cofradía tiene montes en propiedad, a pesar de los expolios, se nombra también un guarda forestal o basozain. 5.– La cofradía no suele querer responsabilizarse de reparar la ermita que, según dicen, es para servicio de todos. Se realizan las reparaciones en colaboración de barrio, parroquia y ayuntamiento.**

**¿A quién pertenece la propiedad de los montes y de las ermitas? Generalmente, no tienen escrituras y en caso de conflicto se reconoce como propietaria a la parroquia que la usa. Las otras propiedades suelen estar menos seguras y en trance de perderse o**

perdidas. La mejor solución sería crear una Asociación de Familias del barrio, legalmente reconocida, y poner los bienes a su nombre y respecto de la ermita llegar a un acuerdo con parroquia y Obispado.

Algunas ermitas están o han estado dentro de una casa. Así San Anton, Santa Marina, San Martin. Otras tienen cerca una casa del ermitaño o de la freila o de la sesora. En Fica existe una casa, hoy taberna, que se llama Sebotze, nombre derivado de serore-etxe. En Derio junto a la parroquia antigua, hay un "sere-txe" hoy residencia de ancianos.

Hay un suceso histórico que conviene recordar. Aunque en el Mungiesado no hay documentos que lo acrediten por haberse quemado en la guerra los archivos de Gernika. El rey mandó vender los bienes de cofradías y enviarle el dinero, con la condición de que pagaría intereses, que hasta la fecha se deben. Eso ocurrió hacia 1840. Pero en la subasta los cofrades compraron otra vez lo suyo. Así el lío es más turbio.

# 14.– 2n. GEIGARRIA: JAUNGURTZA (KULTOA) VIII GIZALDIRA ARTE

Elebarrian agertu dan bizierea ikusita, itaun au datorku: Zelan bizi eben euren fedea kristiñau areik?

Berba bitan, labur-labur, esango dot gero azaltzeko: Orduan mezarik ez euken eta gaur mezea baiño besterik ez daukagu.

Ez da ori egi osoa: Orduan iñoz mezea egingo eben eta gaur beste ospakizun batzuk, esaterako sakramentuak, egiten dira.

VIII gizaldi-aurreko kristiñau areik ez ziran ainbeste arduratzen igandea ospatzeko edo mezea entzuteko. Beste ardura batzuk eukezan kristiñau izan aurretik etorritakoak.

Mezarik ez euken, abaderik be ez eukelako. Lekaideak eurak be geienetan ez ziran izaten mezadunak, legoak baiño.

Zein zan orduko fede-bizitza ta kultoa edo jaun-gurtza? 1.– Illetak: Onetan sendo ezarri ebazan lekaideak: Kristiñau izanda ilten diranak, eleizearen barruam, lurperatu bear dira, illeta eginda. Eta kristinau ez diranak etxean edo etxe-ondoan lurperatuko dira. Orretarako kristiñauen sendi bakoitzak bere illobia eukan eleizan. Oraintsura arte kontuan izan da ori.

Konstantino'ren aldira arte gorpuak erre egiten ziran.

Zelan egiten ete zan illeta?

Lenengo, eremutarra edo freila edo serora edo dalakoa etxera joango zan eta argi-artean gorpua eleizara ekarri. Kanpaia joten zan? Noiztik? Eleizan latiñezko abestiren bat abestu, "gure aita" edo "paternosterra" esan, otoitza, eta beste barik lurperatu.

2n.– Kanpairik ba-egoan, ez dakigu noizkoak diran kanpaiak, arduradunak goizean, eguerdian eta gabean kanpaia joko eban eta

etxean otoitza egin. Orregaitik daukagu euskaldunak geneetan lez iru otoitz onein oiturea. Amak artzen eban otoitzaren ardurea eta illetena etxean eta illobian.

3n.– Arrentzak edo errogatibak egiten ebezan baseleiza ospetsuetara, emen geien Jainko'ra. Eta bederatzi-urrenak be bai.

4n.– Promesak eta eskintzak osasuna lortzeko: Orioa belarriko miñetarako, esaterako, Arrieta'ko San Kristobal'en.

5n.– Ekaitz aldietan araoa edo konjuroa, ur bedeinkatuagaz. Ur bedeinkatuak indar aundia eukan.

6n.– Kurutze Santuaren egunean tximista eta odei-otsoa, trumoia, bedeikatu, orrillean zabaltzeko eta iraillean zarratzeko.

7n.– Soloak bedeinkatu, ur bedeinkatuagaz, eta ordez arduradunak emaitzak artu, batez be arrautzak.

8n.– Gaisoen alde otoitzak eta eskintza. Santu bakoitxari gaiso baten aurkako indarra ezarri eutsoen.

Zalantza barik, ospakizunik ederrenak Pazkoa eta kristiñau barrien bateoak izango ziran.

Ba dagoz beste antxiñako oitura asko gure errietan oraintsura arte bizi izan diranak, Bakoitxak gogoratu begiz.

## Milian’en Kerigma

Barri Ona zabaltzera edo Jesus’en Barria emotera doan edozein misiolarik oiñarri-oiñarrian azaldu bear dauanari esaten jako kerigma eta auxe da: “Jaungoiko Aitak Jesus bialdu eban gizakiak salbatzeko eta oneik Jesus erail egin eben, baiña Aitak biztu egin eban”.

Kerigma au azaltzeko misiolari bakoitxak bere bidea artzen dau. Esaterako Kepa Deunak Pentekoste-egunean artu eban bidea au izan zan: “Zuek il zenduen Jesus Jainkoak biztu egin dau”.

San Paulo’k, ostera, Areopagoan egin eban itzaldian beste bide au artu eban: “Zuen panteoia ikertu dot eta altare bat aurkitu dot Jainko ez-ezagunari eskiñia, Jainko ez-ezagun orri agertzera natortzue ni” eta oiñarri ori artuta azaltzen dau Kerigma: Kristo il eta berbiztua.

Zein izan zan Milian’en kerigma Euskalerrian? Ba, auxe: Zuek Urtzi’ren menpean dagozan Mari ta sorgiñen bildurrez bizi zarie. Ba, nik Inko Jauna, “in” edo zeruetan dagoan Jaun-inkoa iragarten dautsuet. Onek Kismi bialdu eban gizakiak salbatzeko eta oneik erail egin eben baiña Jainkoak biztu egin eban (Kismi izena emoten eutsen Kristo’ri jentillak, esaterako Olentzero’gaz bizi ziran Aralar’eko jentillak).

## Apéndice 2.º: El culto hasta el siglo VIII

**Visto el ambiente que aparece en la historia novelada o breve novela histórica, cabe preguntar: ¿Cómo vivían las/los cristianos vascos hasta el siglo VIII?**

**Dicho brevemente: Aquellos apenas celebraban misas y nosotros apenas celebramos otra cosa que misas.**

**No es cierto del todo. Entonces tenían algunas misas y ahora se celebran también los sacramentos y otras funciones, mucho menos que hace cincuenta años.**

**Hasta el siglo octavo, por lo menos, no era tan importante el domingo, no se veían obligados a oir misa pero tenían otras preocupaciones procedentes del paganismo reciente.**

**Celebraban en común los funerales, sin presencia del sacerdote, con el servicio de la serora o del ermitaño. El centro del funeral debía de ser el "Pater noster". Los cristianos eran sepultados en la misma ermita. Los paganos en sus casas. De ahí que cada una de nuestras familias haya tenido su sepultura en la Iglesia. Esto lo hemos conocido. Tampoco está realizado el estudio del tiempo en que entraron las campanas como instrumento de culto.**

**Las campanas, además, eran tañidas por la serora tres veces al día (mañana, mediodía y anochecer) y la madre rezaba con la familia. Ella era también la que atendía la sepultura. En lo religioso hemos sido matriarcales.**

**Había mucha afición a letanías, una oración bien sencilla. Solían acudir por la peste o por la sequía, a santuarios marianos como Jainko. También hacían novenas.**

**Hacían muchas promesas y llevaban ofrendas a algunos santos con atribuciones curativas, como San Cristobal para el dolor de oído y se le llevaba aceite o San Antolin para el aparato digestivo.**

**Cuando sonaba el trueno y había relampagos se hacían conjuros y se encendían velas en casas. Por Santa Cruz en mayo se abría el trueno y por Santa Cruz en septiembre se cerraba. Se bendecía la nube.**

**Se bendecían los campos sembrados y se pagaba con huevos a la sesora o ermitaño.**

**Se hacían oraciones por moribundos y enfermos.**

**En todos estos actos las seroras o ermitaños usaban el agua bendita que era muy importante.**

**La celebración cumbre era la de los bautizos en la vigilia pascual.**

## El kerigma de Milian

Se llama kerigma al conjunto pequeño de verdades básicas que toma todo evangelizador en su misión. Es el mismo para todos: Jesús vino a salvar a la humanidad y los hombres lo mtaron, pero Dios Padre lo resucitó.

Para entrar a este kerigma San Pedro el día de Pentecostés tomó como base esta verdad: A ese Jesús a quien matasteis, Dios lo ha resucitado.

Sin embargo, San Pablo en el Areópago partió de otra base: He visitado vuestro panteón y he encontrado un altar "al Dios desconocido". Yo vengo a manifestaros a ese Dios" y sigue el anuncio de Jesus, su muerte y su resurrección...

Milian toma como base la religión de los vascos y procede así: He observado que tenéis como Dios a Ortzi y que teméis a sus subordinados que son Mari, las brujas y los basajaunes. Yo vengo a anunciaros al Dios del cielo, Inko Jaun, que está muy por encima de vuestros dioses. El envió a Jesús como Salvador de los hombres, y éstos lo crucificaron, pero Jainko lo resucitó.

# 15.– 3n. GEIGARRIA: EDESTI-ARLOKO OIÑARRIAK

Irakurleak olako itaunen bat egitea ba-leiteke: Elebarri onetan zer da ziurra eta zer da asmakizuna? Zer da garia eta zer gaillekioa?

Alegindu naiten erantzuten, naizta gauza erreza ez izan:

**Akosta:** Egia da an Lekeidetxe aundi eta ospetsu bat egon zala, oso antxiña. Noiz asita ez dakigu.

**Berriaga:** Gauza ziurrak: Indoeuropearren erri baten ondakiñak dagoz. Birla edo Villela sendiak an aginpidea eukan. San Bartolome'ren ermitearen ondakiñak an dagoz. Sei krismoi agertu dira zazpigarren gizaldi-ingurukoak. Belilla'ren arria an egoan. Ortik aurrera asmatu da.

**Birle edo Villela auzoa:** An egoan torrea eta gaur be etxe batek dau izen ori, sendiak an eremutar bat eukan, erromatarren bidearen ondakiñak dagoz. Gero Birla edo Villela'ren etxea Mungia'ra aldatu zan, 1000n. urte inguruan. "Torrontegi" abizena an sortua da.

**Zumetxa (ga):** Gaur an dagoan baseleizea oso antxiñakoa da. Geiena gotikoa izan arren askoz lenagoko gauzak dagoz an. Egokiro artu dogu gure eleizearen sorkunde giroan. An jaun-gurtza VIII gizaldia baiño askoz lenago egoan.

**Fruniz:** Fortun edo Fortunio'ri buruz ziurtasun osorik ez dago. VIII gizaldian Bakio'n guda egin ebala Asturias'tarren aurka, sinistekoa da. Milian'ek maite dau Fortun eta ez Villela. Zergaitik? Geroago Billela'k eleizetako amarrenak eleizen jabe lez eskuratzen ebazalako eta gero abadeak gosez euki, eleizak konpondu ez, eta abar. Orregaitik agertzen dogu jauntxu gorrotagarri lez.

Fruniz'ko eleizan illobi bat dago, estalduta, VIII gizaldikoa beste leku baten dauzan ango arria landuak diñoen lez, eta atzeko aldean ur

bedeinkatu-ontzi oso zar bat dago, baleiteke VIII gizaldia baiño lenagokoa.

**Gamiz-Kafranga:** Madalen-basoa an dago, Diatxai buruz agiriak dagoz eta geuk dakigu. Kafranga'ko ur-ontzia an dago eta Labayru'k lenengo alean diño ontzi arek zerbait adierazten dauala, bear ba'da antxiñako bateoren bat. Oso ondo etorri jako Milian'eri.

**Fika:** Serore-etxe edo Sebotze an dago, gaur tabernea da. San Pedro'ko atxetan ba-dagoz baseleiza baten ondakiñak eta Fika'ko eleizpean antxinako eleizaren arku erromanikoa dago.

**Birle edo Villela:** Mungia'ren edestian garrantzi aundiko sendia da bi milla urteetan. Palentzia'tik etorria ei da sendi au. Ba-dago Palentzian izen au daukan erri bat eta jauntxuen arloan sinistekoa da andik etorria izatea, baiña ez ziurra. Jaun onek aginpidea eukan Mungia'n, Gatika'n, Butron'en, Laukariz'en eta Berriaga'n. Ori edestia da, baita amarrenak artu eta abadeak gosez, eleizak txarto zainduta eukiten ebazala. Orregaitik ezarri dautsagu Milian'en bidez izen txarra. Beti izan da gudalaria. Agiria dago Laukaritz'en eleizea txarto zainduta eukala baiezteko.

Mungialdean VIII gizaldi-inguruko ezaugarri asko dago eta orrek Barri Ona askoz lenago etorri zala esan nai dau. Ona emen batzuk: Jainko'n estela bat VIII gizaldikoa, Meñakabarrena'n beste bat, Emerando'ko Santa Elena'n beste bat, Mungian korupean dagozan illobiak, antza Billela sendiarenak, protoerromanikoak dira eta baleiteke VII gizaldikoak izatea, Fruniz'en, esan dogu VII gizaldi inguruko gauzak dagozala, Laukariz'en oraintsu egin dogu azpiko olaren aldaketa eta VIII gizaldi inguroko illobi bat agertu da eta lengo eleiza txikiaren orma-oiñarriak. Onek asko sendotzen dau elebarri onen ziurtasuna. Magdalena'n eta San Anton'en leio bisigotiko bi dagoz, VII gizaldikoak eta kurutzeduna bat. Eta abar...

## Apéndice 3º: Fundamentos históricos de la narración

**Más de un lector se habrá preguntado: ¿Qué es histórico y qué es ficción en la narración de Milian?**

AKOSTA: **Es dato histórico que en este pueblo de Zigoitia (Alava) hubo un gran cenobio. Hasta quedan restos. Pero ignoramos las fechas.**

VILLELA: **Se sabe que la tore de Villela primitiva estuvo allí y hacia el año 1000 fue construida la Casa Torre de Mungia. Hay allí restos de vía romana.**

BERRIAGA: **Hay allí restos de población de la Edad de Hierro. Se sabe que el Sr. de Villela tuvo allí autoridad. Aparecieron allí seis crismones del siglo VIII. También estuvo allí la estela de Santa Belilla.**

ZUMETXAGA: **Hay allí hoy una ermita muy antigua, casi totalmente románica pero con restos mucho más antiguos. Allí había culto mucho antes del siglo VIII.**

FRUNIZ: **Fortun es legendario, esto no quiere decir que es de invención. También se habla en la historia de su presencia en la batalla contra el Rey de Asturias en Bakio, siglo VIII. Aparece Fortun amigo de Milian, no así Villela. Lo presentamos así porque Villela fue de hecho muy dominante y guerrero y usurpaba los diezmos y abandonaba la reparación de templos.**

**En la Iglesia de Fruniz hay un sepulcro taponado que puede ser del siglo VIII, también una imagen y algunas piedras que estuvieron en ese sepulcro. Allí parece que tuvo que haber culto mucho antes del siglo VIII.**

GAMIZ-KAFRANGA: **Magdalen-baso y Robledal de Diego allí están. En el caserío Kafranga en una de las columnas del portal hay una pila y Labayru dice que debe de ser de un bautismo muy antiguo. Es justo que lo hayamos tomado.**

FICA: **Lo de Serore-etxe y San Pedro es verdad. En el pórtico del templo hay un arco románico taponado.**

**En la zona de Mungia hay varios monumentos del siglo VIII: Estela en Jainko, Estela en Meñakabarrena, estela en Santa Elena de Emerando. En Fruniz hemos citado elementos del siglo**

**VIII o anteriores. Pero cuando abundan monumentos del siglo en Laukariz, quiere decir que la evangelización primera es mucho anterior. De ahí que esta narración no carece de base.**

**Hacen impresión de mucha antigüedad, por ejemplo, los dos ventanales visigóticos de San Antón y de la Magdalena. Pertenecen al siglo VII.**

# 16.– 4n. GEIGARRIA: ELEIZ-ALKARTE ONEIK IKERTZEN GAUR

Guk asmau dogun Milian'ek edo antzekoren batzuk, zeozegaitik esaten jaku "abadea" parrokietako arduradunai, sortu ebezan alkarteak ondoren aundia izan dabe eta aldakuntzak be ez motelak.

Lenengo aldakuntza aundia 1000n. urte-inguruan izan zan: Gizamoltzoak batu ziran inguruan egozan baseleizak eleiza biurtu ziran eta parroki izena artu eben. Aldakuntza ori aundiagoa izan zan 1550n. urte unguruan. Orduan parrokiak ugaritu egin ziran eta baseleizak baztertuta geratu, baiña zerbaitegaitik lekuko lez or dagoz, erdi geldi, baiña testigu, antxiñako errotak gaur dagozen antzera.

Oraintsu izan dot Mungialdeko baseleiza guztiak ikertu-bearra, Museo-lan bat egiteko, eta 29 baseleiza aurkitu doguz. Ona emen:

**Gatika'n:** Andra Mari Parrokia ta Butroi'ko Magdalena deunarena.

**Laukiniz'en:** Martin deunaren parrokia.

**Maruri'n:** Lorentzo deunaren parrokia.

**Meñaka'n:** Andra Mari parrokia.

Lorentzo deuna.

Santa Elena.

Andra Maria (Meñaka-barrena).

**Larrauri'n:** Andra Mari parrokia.

Merana'ko Martin deuna.

Zumetxa'ko Mikel deuna.

**Laukariz'en:** Santiago deunaren parrokia

Ametza'ko Lorentzo deuna.

**Arrieta'n:** Martin Deunaren parrokia.

Gereka'ko Kristobal deuna.

**Jainko'n:** Andra Maria'ren eleizea.

**Bakio'n:** Andra Maria'ren parrokia.
Martin Deuna.
Kristobal Deuna.
Katalina Deuna.
Ursula deuna.
Fernando deuna.
**Fruniz'en:** Salbatzaillearen parrokia.
Justo eta Pastor deunak.
Lorentzo deuna.
Mikel deuna.
Esteban deuna Mandaluniz'en (galdua).
**Fika'n:** Martin deunaren parrokia.
Kepa Deuna (jausita).
**Gamiz'en:** Ander Deunaren parrokia.
Antolin deuna (galdu da).
Magdalena deuna (galdua)
Mikel deuna.

Gure ermiten eta parrokien zaindariak ikusita, auxe bururatzen jaku: Antxiñako Santuak edo andra Maria dabela zaindari. Santuak beti dira bosgarren gizaldia baiño lenagokoak. Orrek esan gura dau bostgarren gizaldian beranduen dala egin zirala eleizak. Berango'n daukagu Santo Domingo eta billaketa egin ondoren, antxiña parrokia San Lorentzo'rena zan eta gero aldatu dabe zaindaria. Bilbao'n San Franzisko dago baiña bostgarren parrokia esaten jako, askoz geroago egiña dalako.

## Milian’en zartzaroa ta eriotza

Milian ibilten ona izan zan bere denporan, baiña eldu jakon zartzaroa eta makurtu egin zan, azurrak kiputu egin jakozan, begiak ostera lausotu. Gurari bizia eukan bere kristiñauak ikertzeko baiña ezin... Beste anai edo abade batzuk joaten ziran berak sortutako alkarteetara.

Akosta’n anai guztiak euken Milian santutzat eta bera egunerik egunera Aitagandik urrago bizi zan.

Berak aurretiaz iragarri eban egun baten, barretxua galdu barik, azkenengo berba oneik esan ebazan: “Zure eskuetan Jauna izten dot nire espiritua” eta burua makurtu eta azkenengo arnasea emon eban.

Illeta gogoangarria egin eutsoen Akosta’ko anaiak, samintasunez eta Itxaropenez.

## Apéndice 4.º: Visita a estas comunidades hoy

**Sea Milian, personaje de ficción, o alguno o algunos ermitaños parecidos, predicaron aquí el evangelio. Por algo se nos llama "abadea" a los sacerdotes. Pero las comunidades que hemos puesto dentro de la ficción están hoy muy transformadas.**

**La primera gran transformación tuvo lugar hacia el año mil, cuando algunos templos crecieron, y más en el siglo XVI cuando se edificaron grandes templos sobre las antiguas pequeñas ermitas. Pero casi todas las ermitas siguen en pie como testigos de algo importante.**

**Recientemente, he tenido que visitar todas las ermitas de la zona de Mungia para servicio del Museo Diocesano. Son 21.Veámoslas:**

Gatika: **Parroquia y Santa María Magdalena de Butrón.**
Laukiniz: **Parroquia de San Martín.**
Maruri: **Parroquia de San Lorenzo.**
Meñaka: **San Lorenzo de Mesterika.**
**Santa Elena de Emerando**
**Santa María de Meñakabarrena.**
Larrauri: **Parroquia de Andra Mari**
**San Martín de Merana.**
**San Miguel de Zumetxaga.**
Arrieta: **Parroquia de San Martín.**
**San Cristóbal de Gereka.**
**Andra Mari de Jainko.**
Bakio: **Parroquia de Andra Mari**
**Martin Deuna.**
**Kristobal Deuna.**
**Katalina Deuna.**
**Ursula Deuna.**
**Fernando Deuna.**
Fruniz: **Parroquia de Salbatzaillea.**
**Justo eta Pastor Deunak de Lekerika.**
**Lorentzo deuna de Andeko.**
**Mikel deuna de Botiola.**

**Esteban deuna de Mandaluniz (no existe ya)**

Fika: **Parroquia de San Martín.**

**San Pedro (Derruida).**

Gamiz: **Parroquia de San Andrés.**

**San Antolín (Se celebra pero no existe).**

**Magdalena (Ni se celebra ni existe, existió).**

**San Miguel de Garaiolza.**

**Si observamos los patronos de nuestras parroquias y ermitas, son siempre santos antiguos, anteriores al siglo V. Eso da a entender que las ermitas se construyeron por el siglo V o VI. Excepciones: San Francisco de Bilbao, por algo se llama quinta parroquia. Es posterior. Y Santo Domingo de Berango. Es denominación más reciente. Antes era de San Lorenzo.**

# IRUDIEN AURKIBIDEA
# ÍNDICE DE ILUSTRACIONES


Gaiñean / Portada: San Milian de la Cogolla (retocada)

Leio bisigotikoa / Ventanal bisigótica (S.VII) .......................... 14

Lekaideak soloan lanean
Monjes trabajando en el campo (H. Holbein) .......................... 24

Birla (Villela)'ren illobiak Mungia'ko eleizan
Sepulturas de Villela en la iglesia de Mungia (año 900) .......... 51

Birle'ko kurutze deuna / Santa Cruz de Villela ........................ 59

Birla (Villela)'ren torre-etxe barria Mungia'n
Nueva Casa Torre de Villela en Mungia (año 1000) ................ 60

Birla (Villela)'ren ikurdia (escudo) Mungia'ko eleizan ............ 62

Berriaga'n illarria / Estela de Berriaga..................................... 64

Illobi estalduta (Laukariz) / Sepulcro taponado (Laukariz) ..... 65

Zumetxaga'ko baseleiza erromanikoa
Ermita románica de Zumetxaga ................................................ 69

Merana'ko Martín deunaren irudi oso zarra
Imagen antiquísima de San Martín de Merana (Larrauri)
¿siglo VIII? ........................................................................... 70

Lorentzo deunaren irudia (Andeko) .......................................... 77

Botiola'ko Mikel deunaren baseleiza (Fruniz)........................... 78

Zortzigarren gizaldiko atea (Fruniz) ......................................... 79

Illobi zarra estalduta / Sepulcro antiguo taponado
(Siglo VII) Fruniz ..................................................................... 80

Illobi orretako arri zarra / Piedra del mismo sepulcro .............. 81

Mikel deunaren irudia / Imagen de San Miguel Gamiz ............ 89

Gereka'n San Kristobal / San Cristóbal de Arrieta ................... 90

Leio bisigotikoa Mungia'n ....................................................... 97

Salbatzaillearen irudia / Imagen del Salvador.
Markaida-Mungia ..................................................................... 98

Atxuri'ko Martin deuna: Kalixa /
San Martin de Atxuri: Cáliz ..................................................... 99

# IDAZLEAREN BESTE LAN BATZUK
# OTRAS OBRAS DEL MISMO AUTOR

1.– Mungialde, Bermio eta Ondarru'ko abostegia (Maisu-Lana)
La fonética vasca en la zona de Mungia, Bermeo y Ondarroa (Tesina inédita)

2.– Len orain eta gero (Elebarri laburra / Novela corta, inédita)

3.– Iruarrizaga'tar Luis aitaren bizitza
Vidal del P. Luis Iruarrizaga

4.– Jauna gurekin (S.M. 3.ª)

5.– Jesus gure bidea (S.M. 2.ª)

6.– Nazaret'eko Jesus (BUP 1.ª)

7.– Erri bat bidean (BUP 2.ª)

8.– Gu, gure mundua, gure fedea (BUP 2.ª)

9.– Zu, martin / Oye, Martin (Autobiografía)

10.– Eduardo Urzelai Astegia (Erri-gizona)

12.– Mungia ta Mungiarrak
Mungia, su tierra y sus hombres.

13.– Fruniztarrak len eta orain
Fruniz, su tierra y sus hombres

14.– Milian: (Kristiñau euskaldunak VIII gizaldira arte)
Milian: (Cristianos vascos hasta el siglo VIII)